Seinale prozesaketan eta ikasketa automatikoan oinarritutako ekarpenak bihotz-erritmoen analisirako bihotz-biriketako berpiztean

Egilea:

Iraia Isasi Liñero

Zuzendariak:

Unai Irusta Zarandona

Elisabete Aramendi Ecenarro

Doktorego tesia

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Familiari,
bizitza osoan zehar emandako
babesagatik.

Asierri,
beti hor egoteagatik.

ESKER ONAK

Ororen gainetik, eskerrak eman nahi dizkiet nire tesi zuzendariei, Eliri eta Unairi, bide hau hain interesgarri eta aberasgarri egiteagatik. Unai, eskerrik asko bihotz-bihotzez nigan sinesteagatik, tesi honi hainbeste asteburu eta jai egun dedikatzeagatik eta, batez ere, zure etengabeko babesagatik. Eli, eskerrik asko beti entzuteko eta aholkatzeko prest egoteagatik eta taldea aurrera ateratzeko egiten dituzun ahalegin nekaezinengatik.

Nire laborategiko kideei, zer egingo nuke nik zuek gabe! Eskerrik asko Andoni zure ezagutza eta ikasteko gogoa nirekin partekatzeagatik. Xabi, mila esker iritsi zinenetik igaro ditugun une on guztiengatik. Erik, esker mila une txarretan aurrera egiteko kemena emateagatik. Bea, benetan eskertzen dizut nire ikerketaren hasieran eman zenidan laguntza guztia. Libe eta Kike, onena opa dizuet hasi berri duzuen bidai honetan.

Eskerrik asko ikerketa honetan parte hartu duten ikertzaile guztiei: Unai Ayala, Trygve Eftestøl, Jo Kramer-Johansen, Lars Wik, eta Jan-Aage Olsen. Aipamen berezia Leif Sörnmo-rentzat, bai profesionalki zein pertsonalki asko ikasi dut zugandik. Eskerrik asko Alba, etxean bezala sentiarazi ninduzulako.

Eskerrak eman nahi dizkiet tesi hau posible egin duten erakundeei: Komunikazio Ingeniaritza Sailari, Euskal Herriko Unibertsitateari, Eusko Jaurlaritzari eta Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministeritzari.

Galdakaoko nire neska politenei, esker mila txikiak ginenetik elkarrekin pasa ditugun momentu on eta txar guztiengatik. Eskerrik asko amaierarik gabeko kafe eta konfidentziengatik. Konfinamendu hilabete gogor hauek jakinarazi didate nire bizitzan zenbat behar zaituztedan.

Eskerrik sakonenak nire gurasoei, etorkizunerako ezin hobeto hezi eta prestatzeagatik, baina batez ere, bizitza osoan zehar eman didazuen izugarrizko maitasunagatik. Lortutako guztia zuei zor dizuet. Eskerrik asko, nola ez, nire ahizpari. Beti izan zara nire eredu, eskerrik asko munduko pertsonarik onena izateagatik.

Eta azkenengo esker beroenak zuretzat doaz Asier. Eskerrik asko izandako pazientziagatik, uneoro hor egoteagatik, lan egiteko emandako denboragatik, etab. luze bat. Sentitzen dudan guztia eskertzeko hitzik ez dagoen arren, bihotz-bihotzez esaten dizut: ESKERRIK ASKO.

LABURPENA

Ospitalez kanpoko bihotz geldialdia (OKBG) bihotz jardueraren ustekabeko etetea da eta heriotzen %10aren eragile da garatutako herrialdeetan. Urteko intzidentzia-estimazioa 55 kasukoa da 100 000 biztanleko, biziraupen-tasak oso baxuak direlarik (%10 inguru).

Bi ekintza dira ezinbesteko OKBGaren biziraupena handitzeko: bihotz-biriketako berpizte (BBB) goiztiarra eta desfibrilazio goiztiarra. Deskarga elektrikoa desfibriladore baten bidez ematen da, zeinek bere baitan erritmo desfibrilagarriak detektatzeko erritmo desfibrilagarrien detektzio (EDD) algoritmo bat duen. Bular-sakadek EKGan sortzen dituzten artefaktoen ondorioz, EDD-algoritmoaren analisia ez da fidagarria. Beraz, nahitaezkoa da BBBa etetea bihotz-erritmoa modu fidagarri batean aztertzeko. Zoritxarrez, etenaldi hauek zeharo txikiagotzen dute pazientearen biziraupen probabilitatea.

Azken hamarkadan ahaleginak egin dira bular-sakadak ematen diren bitartean erritmoaren analisi fidagarria lortzeko. Estrategiak batez ere BBB artefaktua ezabatzeko iragazki moldakorretan oinarritu dira. Hala ere, soluzio hauek ez zituzten Ameriketako Bihotz Elkarteak (AHA) zehaztutako errendimendu-helburuak betetzen. Oraintsu, EDD-algoritmo komertzialak ikasketa automatikoko algoritmoengatik ordezkatu dira erritmo desfibrilagarriak eta ez-desfibrilagarriak bereizteko. Ikuspegi honek bular-sakadak ematen diren bitartean bihotz erritmoa modu fidagarrian aztertu daitekeela frogatzen du. Hala ere, desfibrilazioa ez da OKBGaren tratamendu bakarra, eta kontextu klinikoaren arabera erritmo sailkapen finago bat behar da. Kasurik onenean, OKBG erritmo sailkatzaileek berpiztean eman daitezkeen bost erritmo motak identifikatuko lituzkete. Zoritxarrez, bular-sakaden bitartean AHArekin bateragarria den klase anitzeko sailkatzailerik ez da oraindik garatu.

Aurreko azterketa guztietan eskuzko sakadek sortzen dute artefaktua EKGan. Konpresio mekanikoko gailuak, hala nola Lucas edo AutoPulse, gero eta gehiago erabiltzen dira berpiztean. Ondorioz, sakada mekanikoak ematen diren bitartean EKGaren analisi fidagarria bermatzen duten algoritmoen garapena kritikoa da. Tamalez, sakada mekanikoak ematen diren bitartean AHArekin bateragarria den algoritmorik ez da oraindik garatu.

Tesi honek sakada tarteetarako erritmo analisirako metodo berriak edo hobetuak garatzea du helburu. Zehazki, eskuzko BBBa eta BBB mekanikoarekin batera erabili daitezkeen EDD-algoritmoak edota 5 bihotz-erritmoko sailkatzaileak garatu dira. Tesi lana, bular-sakada mekanikoak eman bitartean desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki fidagarria bermatzen zuen algoritmoaren garapenarekin hasi zen. Soluzio hori bi etapaz osatua dago: bular-sakadek eragindako artefaktua ezabatzen duen iragazki moldakor bat, eta ondoren, EDD-algoritmo komertzial batean oinarritutako etapa anitzeko sailkatzaile bat. Algoritmo horren zehaztasuna are gehiago hobetu zen bigarren azterlan batean, non EDD-algoritmo komertziala ikasketa automatikoan oinarritutako sailkatzaile batengatik ordezkatu zen. Ondoren, ahaleginak eskuzko BBBan zentratu ziren. Lehenik eta behin, bular-sakadak eman bitartean bihotz erritmoa 5 klaseetan sailkatzeko lehenengo algoritmoa garatu zen. Ondoren, ikasketa automatikoan oinarritutako EDD-algoritmoaren zehaztasuna hobetu zen ikasketa sakoneko algoritmoak erabiliz. Tesia azterlan osagarri batekin amaitzen da. Bertan, sakada mekanikoek eragindako artefaktua ezabatzen duten hainbat iragazkiren errendimendua ebaluatzen da berrezarritako EKGaren uhin-formaren, garrantzi klinikoko EKGaren ezaugarrien eta desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakiaren zehaztasunaren arabera.

AURKIBIDEA

IRUDIEN ZERRENDA

TAULEN ZERRENDA

LABURDUREN ZERRENDA

AB	Aurikulobentrikularra
AHA	Ameriketako bihotz elkartea
ANN	Neurona-sare artifizialak
AS	Asistolia
BBG	Bihotz-biriketako geldialdia
BBH	Bat-bateko bihotz-heriotza
BEA	Bizi-euskarri aurreratua
BEO	Bizi-euskarri oinarrizkoa
BEZI	Berezko zirkulazioara itzultzea
BI	Bularreko inpedantzia seinalea
BN	Benetako negatiboa
BP	Benetako positiboa
BPN	Balio prediktibo negatiboa
BPP	Balio prediktibo positiboa
BS	Bradikardia sinusala
bW	Banda zabaleraren estimazioa
CO_2	Karbono dioxidoa
DFA	Alborapenik gabeko fluktuazio analisia
DPA	Desfibrilazio publikorako atzipen programa
DWT	Wavelet transformatu diskretua
EA	Ezaugarrien aukeraketa
EDD	Erritmo desfibrilagarrien detekzio
EKG	Elektrokardiograma

EMD	Modo enpirikoko deskonposaketa
ERC	Europako Suspertse kontseilua
ESN	Erritmo sinusal normala
EuReCa	European Registry of Cardiac Arrest
Exp	Algoritmo exponentzial estandarra
Expmod	Algoritmo exponentzial aldatua
FA	Fibrilazio atriala
FB	Fibrilazio bentrikularra
FN	Faltsu negatiboa
FP	Faltsu positiboa
HILB	Hilberten transformatua
IB	Idiobentrikularra
KDA	Kanpo desfibriladore automatikoa
KNN	k hurbileneko auzokideen sailkatzailea
LMS	Least mean squares
LOS	Larrialdi osasun sistema
MAV	Seinalearen batezbesteko balio absolutua
MC-RAMP	Multi-channel Recursive Adaptive Matching Pursuit
MSA	Etapa anitzeko algoritmoa
OBBG	Ospitalez barruko bihotz-biriketako geldialdia
OKBG	Ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdia
PCA	Osagai nagusien analisia
PDE	Potentzia dentsitate espektrala
PE	Pultsudun erritmoa
PGAE	Pultsurik gabeko aktibitate elektrikoa
PSR	Fase-espazio berreraikirako analisia
PTA	Plus-*l* Minus-*r* aukeraketa

RCWT	Kosinu-altzatuko Wavelet transformatua
RF	Random forest
RFE	Ezaugarrien ezabatze errekurtsiboa
RLS	Recursive least squares
ROC	Resuscitation Outcome Consortium
SA	Sinoaurikularra
SBS	Aurrerako metodo sekuentziala
Se	Sentsibilitatea
SFS	Atzerako metodo sekuentziala
SNR	Seinale/zarata ratioa
SOM	Berezko antolaketa mapak
Sp	Espezifikotasuna
SS	Sakontasun seinalea
SVM	Euskarri bektoredun makinak
SWT	Stationary Wavelet transform
TB	Takikardia bentrikularra
TSB	Takikardia suprabentrikularra
TCSC	Threshold crossing sample count
UBG	Uzkurdura bentrikular goiztiarra
VFleak	FB iragazki jarioa
ZT	Zehaztasun totala
ZO	Zehaztasun orekatua

1 IKUSPEGI OROKORRA

1.1 Bihotza

Bihotza muskulu-organo hutsa da uzkurdura erritmikoaren bidez odol oxigenatua zirkulazio-sistema osoan zehar ponpatzen duena. 1.1. irudian ikus daitekeenez, bihotza lau barrunbez osatua dago: bi goian, ezker eta eskuin aurikulak, eta bi behean, ezker eta eskuin bentrikuluak. Aurikulek bihotzera iristen den odola biltzen dute eta bentrikuluek, berriz, odola bihotzaren kanpoaldera ponpatzen dute. Eskuineko hemisferioak, zirkulazio sistematik datorren oxigeno gabeko odola jaso eta biriketara bidaltzen du oxigenaziorako. Ezkerreko hemisferioak, aldiz, biriketatik datorren eta oxigenoz aberatsa den odola jasotzen du, ondoren gorputzeko gainerako ehunetara ponpatu ahal izateko. Bi ekintza horiek aldi berean ematen dira bihotz-zikloa definitzen duten bi fase ezberdinetan: diastole izeneko betetze fase bat, eta odol-ponpatze fase bat, sistole izenekoa.

Bihotz-zelulen estimulazio elektrikoaren ondorioz muskuluen uzkurtzea eta odol-ponpaketa ematen da. Jarduera elektriko hori gorputzaren gainazalean itsatsitako bi elektrodoen bidez jaso daiteke, eta horrela lortutako erregistroari elektrokardiograma (EKG) deritzo. Bihotz osasuntsuan bihotz-zikloa eskuineko aurikularen goialdean dagoen nodo sinoaurikularrean (SA) hasten da. SA nodoa bihotzaren taupada-markagailu naturala da, eta, ondorioz, bihotz maiztasunaren oinarrizko erritmoa ezartzen du 60-100 pultsu sortuz minuturo. Pultsu elektrikoa SA nodoan sortu eta ezker eta eskuineko aurikulen barrena bidaiatzen du, azken hauen de-polarizazioa eraginez. Jarraian, zelula aurikularren de-polarizazioak



1.1. Irudia. QRS konplexu baten eraketa bihotzaren eroanbide elektrikoaren sistemari dagokionez. Iturria: www.textbookofcardiology.org

eragindako uzkurdurak odola bentrikuluetara ponpatzen du. Azken inpultsu honek EKGan P uhina sortzen du (erreparatu 1.1. irudiari) eta aldi berean, nodo aurikulobentrikularraren (AB) de-polarizazioa (uzkurdura) eragiten du. AB nodoak SAren pultsu elektrikoa jaso eta atzeratu egiten du P-R tartea sortuz EKGan eta bentrikuluei denbora emanaz odolez bete daitezen. Ondoren, pultsu elektrikoa ezker-eskuineko bentrikuluen barrena hedatzen da Purkinje zuntzek eta His-en balak osatutako eroanbide azkarreko sarea erabiliz. Azken horrek, bentrikuluen de-polarizazio (uzkurdura) koordinatua eragiten du zeinek odola biriketara edo gainerako ehunetara ponpatzeko presio nahikoa sortzen duen. 1.1. irudian ikus daitekeenez, de-polarizazio bentrikularra QRS konplexu gisa agertzen da EKG-an. Azkenik, zelula bentrikularrak birpolarizatu eta jatorrizko egoerara itzultzen dira tarte errefraktario baten ostean. Tarte errefraktarioan zelulak ezin dira kitzikatu, eta ondorioz, bentrikuluak ezin dira berriro de-polarizatu. Birpolarizazio bentrikularra EKGan T uhina deritzon ziklo kardiakoaren azken uhin bezala agertzen da. QRS konplexuak birpolarizazio aurikularrari dagokion uhina estaltzen du, eta, ondorioz, azken hau ez da EKGan antzematen.

Pertsona osasuntsuetan bihotz-zikloaren sekuentzia etengabe errepikatzen da odol jario jarraitua sortuz, egoera arrunt horri erritmo sinusal normala (ESN) deritzo. Bihotz-arritmia erritmo normalaren asaldura bat da, bihotzak azkarregi (takikardia), motelegi (bradikardia) edo irregularki ponpatzen duelako. Bihotz-arritmiek larritasun desberdina izan dezakete osasunean, eta bentrikuluetan sortzen direnak, takikardia bentrikularra (TB) eta fibrilazio bentrikularra (FB), alegia, hilgarriak dira. Horietan bihotzak ez du odola eraginkor ponpatzen eta kalte larriak eragin ditzake bihotzean eta burmuinean. Larrialdi egoera horretan premiazkoa da bihotz-arritmia sendatzea eta bihotzak ohiko funtzionamendua berreskuratzea.

1.2 Ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdia

Bat-bateko bihotz-biriketarako geldialdia (BBG) bihotz jardueraren ustekabeko etetea da, eta horrek berezko odol-zirkulazio eraginkorraren galera dakar [1]. Bihotz geldialdiaren ondorioz epe laburrean (ordu bete baino lehen sintomak hasi zirenetik) gertatzen den ustekabeko heriotza naturalari bat-bateko bihotz-heriotza (BBH) deritzo [2, 3]. BBH osasun publikoko arazo garrantzitsua da, biziraupen tasa baxua duen intzidentzia altuko bat-bateko gertakaria baita. Bihotz-biriketako geldialdi gehienak ustekabean ospitaletik kanpo gertatzen dira, gertaera horri ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdia (OKBG) esaten zaio. BBGa leheneratu eta berezko pultsua berreskuratzeko ahaleginei bihotz-biriketako berpiztea (BBB) deritze.

BBHen %80ak arterien gaixotasun koronarioan du jatorria [4], gainerako %20ak, aldiz, kanalizazio genetiko eta kardiomiopatietan [4, 5]. Bihotz-gaixotasun horiek FBa eragiten dute pazienteengan, sarritan TB gisa hasten dena [6, 7]. FBan bihotzak pultsu irregular eta azkarra azaltzen du, eta ondorioz, bentrikuluek koordinazio gabeko uzkurdura ageri dute. Bihotzaren ponpatze eraginkorra galtzen denez, odolaren berezko zirkulazioa berehala etetzen da. FBa leheneratu eta pultsudun erritmoak (PE) lortzeko tratamendu eraginkor bakarra desfibrilazio elektrikoa da. Pultsudun erritmoek odol-fluxu eraginkorra sortzen dute, bihotz jarduera elektriko eta mekaniko organizatuari esker [8]. FBa hasten denetik desfibrilaziora arteko denbora faktore kritikoa da pultsudun erritmoa berreskuratzeko, eta berezko zirkulazioara itzultzea (BEZI) lortzeko [9]. Izan ere, tratatu ezean FBak okerrera egiten du, asistolia (AS) edo pultsurik gabeko aktibitate elektrikoa (PGAE) eraginez [10]. PGAEan, bihotz aktibitate elektriko organizatuak ez du bihotzaren uzkurdura mekanikoa eragiten eta, ondorioz, ez du odol-fluxu eraginkorrik sortzen. Asistolia, jarduera elektriko eta mekanikoaren erabateko galera da. Pazientearen erritmoa AS edo PGAE denean, bihotz-zelulek ez dute oxigenaziorik eta miokardioaren iskemia gertatzen da pazientearen bizi-aukera larri



1.2. Irudia. OKBGan ematen diren 5 erritmo mota nagusien elektrokardiograma tipikoak.

txikituz [11, 12]. 1.2. irudiak BBBan ematen diren bost bihotz-erritmo nagusien EKG tipikoen adibideak erakusten ditu.

OKBGaren intzidentzia zehatza ezezaguna da, definizio eta inklusio irizpideen araberakoa baita. Urteko intzidentzia-estimazioa 150 000 eta 530 000 bitartekoa da Estatu batuetan [2, 13], eta 275 000-koa Europa mailan [14, 15], intzidentziak 38 eta 55 kasu 100 000 biztanle-urteko direlarik, hurrenez hurren. Intzidentzia antzekoa da Espainia mailan, urtero 100 000 pertsonako 29 – 40 kasu ematen direlarik [16, 17]. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan urteko intzidentzia 33.9 kasukoa da 100 000 biztanleko [18].

BBBan aurrerapenak egon diren arren, bai ospitalez barruko bihotz geldialdiko (OBBG) zein OKBGko biziraupen tasak baxuak dira, %10.4koa eta %8.4 – %10.7 tartekoa, hurrenez hurren [19, 20, 14]. OKBGaren biziraupen tasak handiagoak dira hasierako erritmo gisa FBa aurkezten duten pazienteentzat [20]. OKBG kasuetan, FB/TB hasierako erritmo bezala agertzen da %46an, PGAE %17an eta AS %37an, biziraupen tasak %27, %3 eta %1ekoak direlarik, hurrenez hurren [21]. Hala ere, hasierako erritmoen prebalentziak eta OKBGko biziraupen datuak nabarmen aldatzen dira azterketaren eta eskualde geografikoaren arabera. Esate baterako, zenbait hiritan %20tik gorako biziraupen tasak erdietsi dira, eta zenbait landa eremutan, berriz, %2koak [22, 23, 24].

1.3 OKBGa tratatzeko funtzesko terapiak

Biziraupen-katea bihotz-geldialdia tratatzeko ekintzak laburbiltzen dituen metafora da. Lehen bertsioa 1991. urtean argitaratu zen [25], eta azken eguneraketa 2005eko nazioarteko berpizte erakunde nagusien gidetan argitaratu zen. Europako Suspertze Kontseiluak [26] (ERC, ingelesez) eta Ameriketako Bihotz Elkarteak [27] (AHA, ingelesez) bost urtero eguneratzen dituzte suspertze gidak, ordura arteko bildutako ebidentzietan oinarritutako OKBGa tratatzeko gomendioak biltzen dituztenak. Honako hauek dira biziraupen-kateak zehazten dituen funtzesko urratsak:

- *Sarbide goiztiarra*: lehen urrats honek BBGaren antzemate goiztiarra eta larrialdi osasun sistemaren (LOS) aktibazio azkarra hartzen ditu barne. BBGaren sintomak garaiz identifikatzea kritikoa da; izan ere, kolapsoa gertatu aurretik LOSaren aktibazioa biziraupen tasen igoera nabarmen batekin erlazionatu baita [29].

- *BBB goiztiarra:* BBBak bular-sakada eta aireztapenen bitartez bizi-organoak oxigenatzeko beharrezkoa den odol-fluxu artifiziala mantentzea du helburu, deskarga elektrikoa eman arte. OKBGren lekukoak emandako berehalako BBBa biziraupen probabilitatea handitzeko faktore garrantzitsua da [30, 31, 32]. Ondorioz, biztanleria guztia oinarrizko BBBan trebatzea ezinbestekoa da. Biztanlegoaren BBB formazio-programek biziraupen tasak %20an igotzeko gaitasuna dute, AHAren arabera [33].

- *Desfibrilazio goiztiarra*: Desfibrilazio goiztiarra FBa tratatzeko eta BEZIa lortzeko modu eraginkor bakarra da. FBa hasten denetik desfibrilaziora arteko denbora kritikoa da pazientearen biziraupenerako [34, 35]. Desfibrilazio publikorako atzipen (DPA) programek garrantzi handia dute biziraupen-katearen urrats honetan. Izan ere, DPA programen helburua da biztanlerian desfibrilatzeko gaitasuna hedatzea, horretarako kanpo desfibriladore automatikoak (KDA) toki publikoetan kokatuz [36].

- *Bizi-euskarri aurreratu goiztiarra (BEA)*: BBBaren eta desfibrilazioaren konbinazioa sarritan ez da nahikoa pultsua



1.3. Irudia. Biziraupen-katearen lau urratsak: sarbide goiztiarra, BBB goiztiarra, desfibrilazio goiztiarra eta bizi-euskarri aurreratua. Iturria: 2015-eko ERC gidak [28].

berreskuratzeko, eta are gutxiago BEZIa denboran zehar mantendu eta pazientea egonkortzeko. Ondorioz, osasun-langileek emandako tratamendua funtsezkoa da biziraupena handitzeko. Euskarri aurreratuaren terapia nagusiak dira intubazioa, farmakoen administrazioa eta desfibrilazioa [37].

Emergentzia sistemaren aktibazioaren ondoren, anbulantzia iritsi arteko eta lehen BEAren desfibrilazioa jaso arteko denbora nabarmen aldatzen da eremuz eremu. Denbora horien batez bestekoa 5 – 9 min-koa da anbulatziaren kasuan, eta 11 min-koa desfibrilazioaren kasuan [39, 40]. Denbora tarte horretan, lekukoaren BBBa eta desfibrilazioa funtsezkoak dira biziraupen probabilitatea handitzeko. Lekukoak BBBa ematen ez duenean, biziraupen probabilitatea %10 – 12 murrizten da desfibrilazioa atzeratzen den minutu bakoitzeko [41, 42]. Batez-besteko hori, ordea, %3 – 4ra murrizten da lekukoak laguntzen duenean [43, 44, 9]. 1.4. irudiak erakusten ditu BBBak eta desfibrilazio goiztiarrak OKBGren biziraupenean duten eragina. Kolapsoa gertatu ondoren BBBa ez bada 5 min-ko tartean hasten eta desfibrilazioa ez bada lehenengo 5 min-tan ematen OKBGaren biziraupen probabilitatea %20koa baino txikiagoa da. Lekukoaren BBBa lehenengo 4 min-etan hasten bada eta deskarga elektrikoa lehenengo 8 min-etan ematen bada biziraupen



1.4. Irudia. Ospitaletik jasotako alten portzentajea BBBa eta desfibrilazioa jaso arteko denboraren menpe. Iturria: Eisenberg et al. [38].

tasa bikoiztu daiteke (%40tik gora) [38]. Hau da, OKBGko lekukoaren partehartze eraginkorra ezinbestekoa da biziraupenerako.

1.4 Bihotz-biriketako berpiztea

BBBa bular-sakadetan eta aireztapenetan oinarritzen da eta odol oxigenatuaren zirkulazio minimoa bermatzen du [45]. 1.5. irudiak erakusten du BBBan zehar, sakada eta aireztapen egokiak emateko, sorosleak izan behar dituen posizio eta kokapena egokiak.

Berpizte gidek BBB deskribatzen dute, bai BEAn zein bizi-euskarri oinarrizkoan (BEO) [28, 46]. BEOak oinarrizko berpizte prozedura ez inbaditzaileak hartzen ditu barne, non KDA eta beste gailu elektromediku erabilterrazak erabiltzen diren. Oro har, entrenatutako edo entrenatu gabeko BBGa lekukoek, osasun-larrialdietako teknikariek edo segurtasun publikoko profesionalek ematen dute BBBa BEOan [47]. BEAk, aldiz, medikuek egin edo gainbegiratu behar dituzten interbentzioak eta prozedura klinikoak hartzen ditu barne. BBBaz eta desfibrilazioaz gain, BEAk aire-bideen trataera egiten du, farmakoak eman eta BBGa bideratzen du parametro zuzeneruntz hainbat metodorekin [48].

BEOaren oinarrizko terapia bular-sakadak dira, sorosle guztiek eman beharko lituzketenak [28]. Horrez gain, berpizte-giden gomendioen arabera, BBBan entrenatutako sorosleek aireztapenak (ahoz-ahoko erreskate-arnasketak) eman beharko lituzkete, 30 sakaden serieak 2 aireztapenekin tartekatuz. BBB terapia etengabe eman behar da KDA bat izan arte. KDAk pazientearen erritmoa aztertu eta deskarga elektrikoa ematen du beharrezkoa denean.

BEAko osasun-profesionalek laringoskopia eta intubazioa bermatu behar dute, prozedurarako beharrezkoak diren bular-sakaden etenaldiak laburtuz [46]. Intubazioaren ondoren, minutuko 10 aireztapen eman behar dira bular-sakadekin batera. BEAko osasun-profesionalek pazientearen erritmoa bi minuturo aztertzen dute monitore-desfibriladoreak erabiliz. Desfibriladorea erabilita medikuak deskarga agindu eta eman dezake, bihotz-erritmo azterketaren ondoren beharrezkotzat joko balu.

OKBGren biziraupen tasak handitzeko kalitate handiko bular-sakadek duten garrantzia azpimarratzen dute berpizte gidek [28, 46]. Bular-sakaden maiztasun eta sakontasun balio optimoak 100-120 sakada/min-koak (min^{-1}) eta 5-6 cm-koak dira, hurrenez hurren [28, 49, 50]. Gainera, sakaden arteko etenaldiak ekiditzea gomendatzen da.

Kalitate handiko BBBa OKBGren biziraupen tasen handitzearekin erlazionatu da [51]. Bular-sakaden sakonera 5-6 cm-tara igotzeak deskarga elektrikoaren arrakasta-probabilitatea bikoizten du [52], baina, 6 cm-tik gorako sakonera duten sakadek lesio-tasa handitzen dute, hala nola, saihets hezurrak hautsiz. Bular-sakaden maiztasunari dagokionez, Idris et aliik [53] 125 min^{-1} maiztasunean aurkitu zuen berpizte probabilitaterik altuena BBBaren lehenengo 5 min-etan. Bular-sakada azkarragoek, sakonera gutxiago dute, BBBaren eraginkortasuna murriztuz [53]. Bular-sakaden maiztasuna 75 min^{-1} azpitik dagoenean BEZI probabilitatea txikiagotzen dela erreportatu izan da [53].



1.5. Irudia. Soroslearen posizio eta kokapena BBBan zehar sakada eta aireztapenak emateko. Iturria: 2015eko ERC gidak [28].

OKBGaren inguruko azterlanen arabera, kalitate handiko BBB ematea erronka handia da bai entrenatu gabeko lekukoentzat [54], bai BEAko osasun profesionalentzat [19, 55, 56, 57]. Ohikoak dira sakaden arteko etenaldiak, sakontasun gutxiko sakadak eta azkarregi ematen direnak. Soroslearen nekea BBB luzeetan, berrelikadura-gailuen gabezia eta anbulantzietako baldintza ezegonkorrak dira kalitate baxuko BBBaren arrazoi nagusienak.

BBBaren kalitatea hobetzeko, BEAko osasun profesionalak bularra sakatzeko gailu mekanikoak erabiltzen hasiak dira. Gailu horiek egungo berpizte giden jarraibideekin bateragarriak diren maiztasun eta sakontasun konstanteko sakadak ematen dituzte. Bi gailu automatiko mota daude komertzialki eskuragarri: neumatikoki eragindako pistoian oinarritutakoak, hala nola, LUCAS-3 (Physio-Control Inc/Jolife, AB, Lund, Sweeden), eta kargaren banaketa uniformerako bandak, hala nola, AutoPulse (Zoll Circulation, Chelmsford, Massachusetts, USA) [46]. LUCAS-3 eta AutoPulse gailuak 1.6. irudian ikus daitezke eta haien espezifikazio teknikoak 1.1. taulan ageri dira.

Konpresiorako gailu mekanikoek kalitate handiko bular-sakadak ematen dituzte. Hala ere, ausazko kontrol entsegu klinikoek ez dute argi uzten BBB mekanikoak OKBGaren biziraupenean duen eragina [58, 59]. Rubertsson et aliik [58] ez zuten lau ordutako biziraupenean desberdintasun esanguratsurik topatu LUCAS gailuarekin edo kalitate handiko eskuz emandako BBBarekin tratatutako pazienteen artean. Gainera, bi taldeek egoera neurologiko berdina erakutsi zuten 6 hilabeteren ondoren [59]. Wik et aliik [59] ez

1.1. Taula. LUCAS-3 eta AutoPulse gailuen zehaztapen teknikoak.

	LUCAS-3	AutoPulse
Sakaden maiztasuna	$102 \pm 2\,\mathrm{min}^{-1}$	$80 \pm 2\,\mathrm{min}^{-1}$
Sakaden sakonera	$40 - 55\,\mathrm{mm}$ bular sakoneraren arabera	bular sakoneraren %20a
Ibilera-zikloa	%50	%50
Bularra berera etortzea	Bai	Bai

1.6. Irudia. LUCAS-2 eta AutoPulse gailuak. LUCAS-2 gailuak neumatikoki eragindako pistoi bat erabiltzen du pazientearen bularra konprimitzeko; AutoPulse gailuak, aldiz, bularraren inguruan kokatutako kargaren banaketa uniformerako banda bat erabiltzen du sakadak emateko.

zuten alde nabarmenik erreportatu AutoPulsearekin eta eskuzko BBBarekin tratatutako pazienteen ospitaleko altaren ondorengo biziraupenean, ezta egoera neurologikoan ere. BBBrako gailu mekanikoen erabilera biziraupen handiago batekin zuzenki lotuta ez dagoenez, gailu horien erabilera iraupen luzeko BBBan eta eskuzko bular sakadak praktikoak ez diren edo soroslearen segurtasuna arriskuan jartzen duten egoeretan gomendatzen da [46].

BBGaren tratamendua ez da beti posiblea geldialdia gertatu den tokian, hala nola, hipotermiak edo intoxikazioek eragindako geldialdietan [60, 61, 62, 63]. Egoera horietan pazientea ospitalera garraiatzea ezinbestekoa da BBB terapia jasotzen duen bitartean [64]. Zoritxarrez, garraiatu bitartean emandako eskuzko sakadak ez dira eraginkorrak eta segurtasun-uhala lotuta ez izateak sorosleen bizitza arriskuan jartzen du [65, 66]. Hori dela eta, gailu mekanikoak eskuzko BBBaren alternatiba egokia dira garraioan kalitate handiko bular-sakadak emateko [67, 68, 69, 70, 71, 72].

BBBa eta desfibrilazioa sarritan ez dira nahikoak BEZIa lortzeko. Kasu horietan BBGaren azpiko patologia tratatzea da funtsezkoena. Arteria koronarioen hersketa da sarritan pultsua ez berreskuratzearen arrazoia, FB errepikakorraren edo PGAE iraunkorraren eragilea baita. Larruazalpeko interbentzio koronarioa askotan ezinbestekoa da zirkulazio eraginkorra berrezartzeko koronarioen hersketa pairatzen duten pazienteetan. Kasu horretan, noski, bular-sakadak emanez egin behar da interbentzioa eta BBBrako gailu mekanikoak erabiltzen dira sarritan [73, 74, 75, 76].

1.5 Desfibrilazio goiztiarra

Desfibrilazioa erdiesteko miokardioan zehar korronte elektriko bat pasarazten da miokardioaren masa kritiko bat despolarizatzeko helburuarekin. Horrek, bihotzaren kontrola SA nodoari ematen dio eta pultsudun erritmoa berrezartzen du. BEOak KDA erabiltzen du terapia elektrikoa burutzeko; BEAak, berriz, monitore-desfibriladore izeneko gailu sofistikatuagoen bitartez burutzen du desfibrilazioa.

KDAk prestakuntzarik gabeko lekukoen esku-hartzea ahalbidetzen du OKBGan, lekukoak BBBaren eta desfibrilazio terapian zehar gidatuz [77]. Lehenik eta behin, desfibrilaziorako partxeak pazientearen bularrean itsatsi behar dira. Partxe horiek EKG eta bularraldeko inpedantzia seinalea (BI) erregistratzen dute eta deskarga elektrikorako beharrezkoa den korrontea sortu. Behin partxeak modu egokian itsatsita daudela, KDAk automatikoki hasten du bihotz-erritmoaren analisia bere baitan duen erritmo desfibrilagarrien detekzio (EDD) algoritmo bat erabiliz. Horrek FB edo TB erritmoak antzematen baditu (erritmo desfibrilagarriak), desfibrilazioa aplikatzea gomendatuko dio sorosleari. Beste erritmo batzuk detektatuz gero (erritmo ez-desfibrilagarriak), BBBarekin jarraitzeko agindua emango dio, bi minutu barru hurrengo erritmo azterketa gauzatzen duen arte.

1997an AHAk EDD-algoritmoek bete behar dituzten segurtasun eta zehaztasun mailak zehaztu zituen [78]. Txosten honek, EDD-algoritmoaren garapenean eta frogan erabilitako datu-baseari buruzko zehaztapenak eta EDD-algoritmoak bete beharreko errendimendu-metrikak zehazten ditu.

AHAren dokumentuak hiru kategoriatan sailkatzen ditu OKBG bihotz-arritmiak:

- *Erritmo desfibrilagarriak:* Heriotza saihesteko desfibrilazio azkarra behar duten erritmo hilgarriak. Erritmo horien artean daude FB sendoa (200 µVetik gorako erpinetik-erpinerako anplitudea dutenak) eta TB azkarra, oro har 120 min^{-1}tik gorako bihotz-maiztasuna dutenak (hornitzailearen araberakoa).

- *Erritmo ez-desfibrilagarriak:* Desfibrilatuak izan behar ez diren erritmoak, gehienak pultsudun pazienteengan ematen direnak. Ez da komeni bihotz-erritmo mota hauek desfibrilatzea, kaltegarria izan baitaikete pazientearentzat. Horien artean daude: ESNa, takikardia suprabentrikularra (TSB), bradikardia sinusala (BS), fibrilazio atriala (FA), bihotz-blokeoa, erritmo idiobentrikularra (IB), uzkurdura bentrikular goiztiarrak (UBG) eta pultsu antzemangarria duten edota konortedun pazienteetan ematen diren beste erritmo mota batzuk.

  Asistolian dauden pazienteak, 100 µVetik beherako erpinetik-erpinerako anplitudea azaltzen dute EKGan, eta ez da komeni desfibrilatzea [79]. ERCko gidek diotenez asistolia desfibrilatzeko BBBa etetzea ez da onuragarria pazientearentzat [46].

- *Bitarteko erritmoak:* Bihotz-erritmo hauentzat desfibrilazioaren onurak mugatuak edo zalantzazkoak dira. Hemen sailkatzen dira maiztasun edo anplitude txikiko FBak ($100 - 200$ µV bitarteko anplitudeak) eta TB azkarraren irizpideak betetzen ez dituzten TBak.

1.2. Taula. EDD-algoritmoarentzako errendimendu helburuak. Iturria: Kerber et al. [78].

Erritmo motak	Lagin kopuru minimoa testean	Errendimendu-helburua	%90 azpiko KT
Desfibrilagarriak			
FB sendoa	200	> %90 Se	%87
TB azkarra	50	> %75 Se	%67
Ez desfibrilagarriak	300		
ESN	100	> %99 Sp	%97
FA, BS, TSB, blokeoa, IB, UBG	30	> %95 Sp	%88
Asistolia	100	> %95 Sp	%92
Bitartekoak			
FB fina	25	Erreportatu bakarrik	-
Beste TB	30	Erreportatu bakarrik	-

EDD-algoritmoa garatu eta testeatzeko datu-baseek hiru mailatako bihotz-erritmoak gorde behar dituzte. Erritmoak anotatzerakoan gertatzen diren medikuen arteko desadostazunak direla eta, erritmo sailkapenak gutxienez hiru adituen arteko adostasuna izatea gomendatzen du AHAk.

EDD-algoritmoaren errendimendua ebaluatzeko, algoritmoaren desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakiak berpiztean adituak diren medikuen anotazioekin alderatzen dira, desfibrilatzeko erabakia klase positibo gisa definituz. Honela, benetako positiboen (BP), faltsu positiboen (FP), faltsu negatiboen (FN) eta benetako negatiboen (BN) kopurua kalkula daiteke. AHAk soilik bi errendimendu metriketan eskatzen du gutxieneko balioa; sentsibilitatea (Se) eta espezifikotasuna (Sp), hau da, zuzen sailkatutako erritmo desfibrilagarri eta ez desfibrilagarrien proportzioa, hurrenez hurren. Balio prediktibo positiboa (BPP) eta negatiboa (BPN), zehaztasun totala (ZT) eta zehaztasun orekatua (ZO) EDD-algoritmoaren errendimendua ebaluatzen duten neurri tipikoak dira baita ere. Matematikoki, errendimendu-metrika horiek honela definitzen dira:

$$\mathrm{Se} = \frac{\mathrm{BP}}{\mathrm{BP}+\mathrm{FN}} \qquad \mathrm{BPP} = \frac{\mathrm{BP}}{\mathrm{BP}+\mathrm{FP}} \tag{1.1}$$

$$\mathrm{Sp} = \frac{\mathrm{BN}}{\mathrm{BN}+\mathrm{FP}} \qquad \mathrm{BPN} = \frac{\mathrm{BN}}{\mathrm{BN}+\mathrm{FN}} \tag{1.2}$$

$$\mathrm{ZT} = \frac{\mathrm{BP+BN}}{\mathrm{BP+FN+BN+FP}} \qquad \mathrm{ZO} = \frac{1}{2}(\mathrm{Se}+\mathrm{Sp}) \tag{1.3}$$

1.2. taulak EDD-algoritmoa frogatzeko AHAk eskatzen duen gutxieneko EKG lagin kopurua zehazten du kategoria bakoitzeko. Horrez gain, erritmo mota bakoitzeko Se eta Sp balio minimoak zehazten ditu. KDA komertzialetan inplementatutako EDD-algoritmoak pertsona helduen erritmoak erabiliz frogatu behar dira [80, 81], eta azken hamarkadan haurren erritmoekin ere frogatu izan dira [82, 83, 84, 85], %96tik gorako Se eta %100 inguruko Sp balioak erreportatuz [86, 87].

1.6 Desfibrilazioa eta BBBa

Desfibriladoreak bihotz-erritmoa egoki aztertzeko bular sakadak eten behar dira, sakadek zarata gehitzen baitiote EKGari EDD-algoritmoaren zehaztasuna txikituz. [88]. Etenaldi horien iraupena 5.2 – 28.4 s bitartekoa da, eta jakina da etenaldiek desfibrilazio arrakasta eta biziraupen probabilitatea zeharo txikitzen dutela [89, 90, 52, 91, 92]. 1.7. irudian ikus daitekeenez, desfibrilazio arrakastatsuak sarriago gertatzen dira etenaldiak laburrak direnean [52]: desfibrilazioan arrakasta-probabilitatea %90a baino handiagoa da etenaldia 10 s baino laburragoa denean; baina %38ra jaisten da etenaldia 30 s baino luzeagoa denean. Aurkikuntza hauek bat datoz Chestkes et aliik argitaratutako emaitzekin [92] . Haien arabera, ospitaleko alta portzentaia %18 jaisten da deskargaren aurreko etenaldia 5 s luzatzen den bakoitzeko.

BEAko medikuek monitore-desfibriladoreak erabiltzen dituzte EKGaren erritmoa aztertu eta deskarga elektrikoa emateko. Monitore-desfibriladoreek bi funtzionamendu modu dituzte: eskuzkoa eta automatiko/erdiautomatikoa, hau da, KDA modua. Eskuzko modua da BEAn gehienbat erabiltzen dena, medikuek EKGa bisualki aztertu eta deskarga eman behar den edo ez erabakitzen dute. Medikuek



1.7. Irudia. Desfibrilazioaren arrakasta-probabilitatea BBBaren etenaldiaren menpe. Iturria: Edelson et al. [52].

erritmoaren azterketa bi minuturo egiten dute, eta azterketarako bular-sakadak eten egin behar dituzte artefaktu gabeko EKG garbia aztertzeko.

Monitore-desfibriladoreek pazientea sakonago monitorizatzeko aukera ematen dute EKGaz eta BIaz aparte beste hainbat seinale eskuratzeko gai baitira, hala nola, pultsu-oximetria edo kapnografia. Pultsu-oximetriak odoleko oxigeno-saturazio maila ematen du, azkenaldian BBBaren eranginkortasuna neurtzeko eta BEZIa antzemateko proposatu izan dena. [93]. Kapnogramak pazienteak igorritako arnas gasen CO_2 kontzentrazioa ematen du denboraren arabera. Kapnograma hainbat aplikazio klinikotan erabiltzen da, hodi trakealaren kokapen egokia baieztatzeko [94, 95, 96], BBBaren kalitatea monitorizatzeko [97, 98, 99] eta BEZIa [100, 101, 102] noiz ematen den antzemateko. Horrez gain, monitore-desfibriladoreek BBBaren berrelikadura ahalbidetzen duten azelerazio eta indar sentsoreak izaten dituzte. Sentsore horien bitartez sakaden sakontasuna (SS) adierazten duen seinalea kalkulatu daiteke eta



1.8. Irudia. Monitore-desfibriladoreak erregistratutako seinale ezberdinen adibideak. Goitik behera: EKG, BI, SS eta CO_2 (kapnograma) seinaleak.

sakontasunetik abiatuta sakaden batezbesteko sakontasunari edota maiztasun kalitateari lotutako metrikak neurtu daitezke [103, 104, 105]. 1.8. irudiak monitore-desfibriladore batek erregistratutako EKG, BI, SS eta kapnografia seinaleen adibideak erakusten ditu.

OKBGen biltegiek desfibriladoreek erregistratutako fitxategi elektronikoak eta pazienteen datu klinikoak biltzen dituzte modu zentralizatu batean. Informazio klinikoa Ulstein [106] deituriko formatu estandarrean jasotzen da. Informazio klinikoan hainbat informazio biltzen da, larrialdietako koordinazio zentruetan, anbulantzietan, ospitaleetan eta ospitaleen alta-txostenetan batzen dena. Biltegi horiek ezinbestekoak dira OKBGen biziraupena handitzeko, datubase estandarizatuen bidez larrialdietako zerbitzu sistemen erantzundenborak, tratamenduak eta OKBGaren emaitzak alderatzeko aukera ematen baitute. Resuscitation Outcome Consortium-ak (ROC) [107] du mundu mailako OKBGen biltegirik handiena, Kanadako eta Estatu Batuetako eskualde ezberdinetan banatutako 11 zentru klinikoen datu bilketak batzen dituelarik. Europa mailan, European Registry of Cardiac Arrest-a (EuReCa) [108] da OKBGen datu baserik handiena, 27 herrialdeetako larrialdi-zerbitzuen datuak biltzen baititu.

1.7 OKBGko erritmoen sailkatze automatikoa

OKBGen terapia hobetzeko seinaleen prozesamenduan eta ikasketa automatikoan oinarritutako hainbat algoritmo argitaratu dira literatura zientifikoan. Algoritmo horien xedea da erabaki kliniko zailak modu fidagarri eta zehatzean automatizatzea. Aplikazio kritikoenetako bat OKBGko pazientearen erritmoa modu fidagarrian identifikatzea da.

Desfibrilazioak OKBGan duen rol kritikoa kontuan hartuta, ikerketa gehienak erritmo desfibrilagarriak eta ez-desfibrilagarriak bereizten dituzten algoritmoen garapenera bideratu dira. Erritmo desfibrilagarrien EKGak ezaugarri bereizgarri batzuk ditu, hala nola, uhin irregulartasun eta maiztasun bentrikular handiagoa, QRS konplexuen gabezia edota banda zabalera txikiagoa. Ondorioz, hasierako azterlanek, erritmo desfibrilagarriak identifikatzeko EKG ezaugarrien garapena izan zuten ardatz [109, 110, 111, 112, 113, 85, 114, 115, 116]. Ezaugarri horiek identifikatzeko seinaleen prozesamendu teknika aurreratuak erabili ziren arren, hasierako lanetan sailkatze etapa oso sinplea zen, atalase finkoetan oinarritutako erabakiak alegia. Ondorengo lanetan, sailkatze etapak hobetu ziren, FBaren identifikaziorako ezaugarrien erausketa ikasketa automatikoan oinarritutako algoritmoekin konbinatuz [117, 118, 119, 120, 121, 122]. Azkenaldian, FBaren detekziorako algoritmoen errendimendua are gehiago hobetu da ikasketa sakoneko algoritmoen erabilerari esker, %98.5etik gorako zehaztasunak lortuz [123, 124].

Hala ere, desfibrilazioa ez da OKBGaren tratamendu bakarra, eta testuinguru klinikoaren arabera erritmo sailkapen finagoa behar da. Adibidez, pazientearen pultsua detektatzeko PGAE eta PE erritmoak bereiztu behar dira. Pultsua edo BEZIa garaiz identifikatzea ezinbestekoa da bihotz-geldialdiaren antzemate goiztiarrerako eta berpizte ondorengoko zainketak garaiz hasteko. Ondorioz, seinaleen prozesamenduan eta ikasketa automatikoan oinarritutako algoritmo anitz garatu dira literaturan BEZIa detektatzeko. Algoritmo hauetako batzuk soilik EKGa [125, 126] edo BIa [127] erabiltzen dute PGAE eta PE erritmoak bereizteko; beste batzuk, aldiz, hainbat seinaleetatik (EKG, BI eta kapnograma) eratorritako informazioa konbinatzen dute [128, 129]. Bigarren mailako beste erritmo sailkapen batzuk aztertu dira baita ere, hala nola, FB/TB bereizketa [130]. Kardiobertsio elektriko sinkronizatuak onurak ekar ditzake pazientea TBan dagoenean baina ez FBan dagoenean [131].

Kasurik onenean OKBGko erritmo sailkatzaileek berpiztean eman daitezkeen bost erritmo motak identifikatu beharko lituzkete. BBBan zehar pazientearen erritmoa ezagutzea bi arrazoirengatik da garrantzitsua. Alde batetik, bihotz-erritmoa zein den jakiteak tratamendurik onena aukeratzea ahalbidetzen du. Bestalde, bihotz erritmoaren trantsizioek terapiaren eta pazientearen erantzunaren arteko elkarreraginari buruzko informazioa ematen dute atzera begirako analisietan [132, 133, 134]. Horrela, OKBGaren biziraupena hobetzen duten tratamendu-ereduak identifikatu daitezke. Zoritxarrez, atzera begirako analisiak aurrera eramateko behar diren OKBG datu-base anotatuak oso eskasak dira, eta kalitatezko erritmo-anotazioak lortzea prozesu luzea da. Klase anitzeko sailkatzaile batek OKBGko datu-basearen berehalako anotazioa ahalbideratuko luke atzera begirako analisietan. Rad et aliik [135, 136, 137] bihotz erritmoa 5 klaseetan sailkatzeko lehenengo algoritmoak garatu zituzten, %75eko balioa lortuz senbilitateeen batezbesteko haztatuan (SBH) [137].

Seinaleen prozesamenduan eta ikasketa automatikoan oinarritutako algoritmoak erabili dira erritmoen sailkapenarekin lotuta ez dauden beste hainbat aplikazioetan. Esate baterako, desfibrilazioaren arrakasta aurreikusten duten algoritmoek [138] BBBarekin jarraitzea edo pazientea desfibrilatzea egokiagoa den gomendatzen diote sorosleari. Horien bidez, beharrezkoak ez diren BBBaren etenaldiak sahiesten dira, OKBGaren biziraupena handiagotuz. EKGa desfibrilazioaren arrakasta aurreikusteko seinalerik erabiliena izan den arren [139, 140], azken azterketen arabera iragarpena hobetu daiteke kapnograma erabiltzen bada EKGarekin batera [138]. Azkenik, seinaleen prozesatzearen teknikak BBBaren kalitatea estimatzeko ere erabili dira. BBBaren metriken kalkulua funtzeskoa da BBBa hobetzeko. Batetik, sorosleari BBBaren inguruko denbora errealeko berrelikadura emateko, eta bestetik atzera begirako analisien bidez biziraupena hobetzeko BBB ereduak identifikatzeko. SS seinaleak ematen ditu sakada maiztasunaren eta sakontasunaren neurririk fidagarrienak [103, 104, 105]. BI seinalea sakada maiztasuna kalkulatzeko ere erabil daiteke [141, 142, 105], baina ez du balio sakontasuna neurtzeko [143]. Aireztapenekin lotutako metrikak BItik edo kapnogramatik atera ohi dira [144, 145].

1.8 Tesi lanaren motibazioa

Bular-sakadek EKGan sortzen dituzten artefaktuen ondorioz, erritmoaren analisia ez da fidagarria sakadak ematen direnean. Adibidez, sakada tarteetan egindako analisietan %58.4/%90.8 eta %81.5/%67.2 Se/Sp balioak lortu dira EDD-algoritmoekin [146, 147]. Bestetik, Rad et aliik [137] proposatutako klase anitzeko algoritmoaren SBHa 20-puntutan jeitsi zen bular-sakada tarteetan frogatu zenean [137]. Beraz, bular-sakadak eten behar dira bihotz-erritmoa modu fidagarrian aztertzeko. Baina 1.6. atalean azaldu den bezala, geldiketa horiek zeharo txikiagotzen dute pazientearen biziraupen probabilitatea. Ondorioz, geldiketa hauek ekidingo dituzten metodo fidagarrien garapena ezinbestekoa da.

Azken 15 urteetan ahaleginak egin dira bular-sakadak ematen diren bitartean erritmoaren analisi fidagarria ahalbidetzeko, bereziki desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki fidagarri bat lortzeko. Bular-sakada tarteetan AHAren errendimendu-helburuak betetzen dituzten EDD-algoritmoak garatu dira jadanik, baina artefakturik gabeko tarteetan garatutako EDD-algoritmoen zehaztasuna handiagoa da [148, 149]. Algoritmo hauek guztiak eskuzko BBBrako frogatu dira, baina tesi hau hasi zenean, sakada mekanikoko tarteetan AHArekin bateragarria zen EDD-algoritmorik ez zegoen. BBB mekanikoan desfibrilatu/ez-desfibrilatu diagnosi fidagarri bat lortzeko egindako ahaleginek %97.9ko eta %84.1eko Se eta Sp balioak lortu zituzten, hurrenez hurren [150]. Horrez gain, ez zegoen 5 klaseko erritmoaren sailkapen fidagarrirako algoritmorik eskuz zein mekanikoki emandako sakada tarteetarako.

Tesi honek, sakada bitarteko erritmo analisiaren esparruan aztertu gabe dauden gaiak ikertzea du helburu. Sakada tarteetako erritmo analisirako metodo berriak edota hobetuak garatzea da helburu nagusia, horretarako seinaleen prozesatze eta ikasketa automatikoko teknikak erabiliz. Zehazki, eskuzko BBB eta BBB mekanikoarekin batera erabili daitezkeen EDD-algoritmo edota 5 bihotz-erritmoen sailkapenerako algoritmoak garatu dira. Garatutako metodoak orokorrak dira, eta erritmo analisiaren testuinguru gehienetara egokitu daitezke. Algoritmo hauek BBBaren agertoki eta bihotz-erritmoen sailkatzerako problema ezberdinetan duten balioa, neurri handi batean, ikerketarako eskuragarri dauden datuen araberakoa da.

2 ARTEAREN EGOERA

2.1 Ikasketa automatikoa OKBG-erritmoak sailkatzeko

Arritmia bentrikular hilgarrien detekzioa, FBak eta TBak detektatzea, alegia, izan da geldiketetan ematen diren erritmoen sailkatzean gehien landu den ikerketa-lerroa.

Arritmia hilgarrien detekzioa aztertu zuten lehen ikerlanek EKGtik erauzitako FBa detektatzeko diseinuak landu zituzten. Lan horietan FB/TB erritmoen ezaugarri bereizgarrien kalkulurako metodoak proposatu ziren, horretarako EKGren hainbat ezaugarri aztertuz: denboraren eremuan kalkulatutakoak [112, 113], uhin-formaren ezaugarri morfologikoak [110], espektro-ezaugarriak [109, 151], edota seinalearen konplexutasun neurriak [152, 153, 154]. Jekova et aliik [155] eta Amann et aliik [152] FBa detektatzeko ezaugarrien lehen konparaziozko azterketak burutu zituzten. Hala ere, ezaugarri bakarra erabiltzen denean FB/TB detekzio-zehaztasuna mugatua da [118]. Ondorioz, ikasketa automatikoan oinarritutako algoritmoen erabilera orokortu egin zen, FBaren detekziorako ezaugarri ezberdinek emandako informazioa modu eraginkorrean konbinatuz [156, 157]. Sailkatzaileak erabili aurretik ezaugarriak aukeratzen dira, hau da, sailkatzailearen errendimendua optimizatuko duen ezaugarrien azpimultzoa zein den erabaki behar da [158, 118, 119, 117]. 2.1. irudiak ikasketa automatikoan oinarritutako EDD-algoritmo baten egitura laburbiltzen du, lau etapaz osatuta dagoena: EKGaren aurreprozesatzea, ezaugarrien erauzketa, ezaugarrien aukeraketa, eta ikasketa automatikoan oinarritutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki-algoritmoa.



2.1. Irudia. EDD-algoritmoen etapa nagusiak: aurregokitze iragazkiak, ezaugarrien erauzketa eta aukeraketa etapak, eta ikasketa automatikoan (IA) oinarritutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki-algoritmoa.

Lehen etapan EKG seinalea, $s(n)$[1], iragazten da mugimenduak edota sare elektrikoak sortutako zarata garbitzeko. Gero, iragazitako seinaletik, $\hat{s}(n)$, ezaugarriak erauzten dira, K ezaugarri dituen $\boldsymbol{x}_i$ ezaugarri-bektorea lortuz. Hau da, seinalea K dimentsiotako ezaugarri espazioan mapatzen da. Ezaugarrien aukeraketa egiteko etapan $\boldsymbol{x}_i$-ren dimentsioa txikitzen da K-tik K'-ra. Ondorioz, N EKGz osatutako OKBGko erritmoen datubasea adibide-etiketa multzo bat bezala adieraz daiteke, $\{(\boldsymbol{x}'_1, y_1), ..., (\boldsymbol{x}'_N, y_N)\}$, non y_i klase etiketak $\{0, 1\}$ diren desfibrilatu/ez-defibrilatu sailkatze probleman.

2.2. irudian adierazten den moduan, datuak bi azpimultzotan banatzen dira: entrenamendurako multzoa, ikasketa automatikoko algoritmoa doitzeko erabiliko dena, eta frogarako multzoa, algoritmoaren errendimendua alborapenik gabe ebaluatzeko erabiliko dena. Sarritan entrenamendurako multzoa bi azpimultzotan banatzen da ere: entrenamendurako azpimultzoa, eredua doitzeko, eta balioztatzeko azpimultzoa, ereduaren doiketa-prozesuan erabiliko dena errendimenduaren estimazioak alborapenik gabe lortzeko. Ezaugarrien aukeraketa ere entrenamendu/balioztatze azpimultzotan egiten da.

Hurrengo ataletan ikusiko dira desfibrilatze/ez-desfibrilatze algoritmoen garapenean erabili diren sailkatze-ezaugarriak, ezaugarriak aukeratzeko metodoak, eta ikasketa automatikoko metodo nagusiak.

---

1 Testuan $s(n)$ motako seinale digitalak erabiliko dira. Denbora ardatza beraz $t = nT_s$ izango da, non n lagin indizea den eta T_s laginketa periodoa.



2.2. **Irudia.** Entrenamendu-, balioztatze- eta froga-multzoak ikasketa automatikoan.

2.1.1 Ezaugarrien erauzketa

Arritmia bentrikular hilgarriak detektatzeko ehundik gora EKG-ezaugarri proposatu dira literaturan. Ezaugarri horiek arritmien bereizgarriak zenbakiz adierazten dituzte, eta maiz seinalea eremu berri batetara transformatzen da kalkuluak egiteko. Adibidez, maiztasunaren eremuan, erritmo desfibrilagarriek banda zabalera estuagoa dute (ikusi 2.3. irudia). Bestalde, FBaren uhin-formaren irregulartasuna, edota TBaren aktibitate eskasa lerro isoelektrikoaren inguruan hobe antzematen dira denboraren eremuan. Hurrengo puntuetan desfibrilatu/ez-desfibrilatu esparruan proposatutako EKG-ezaugarri nagusiak aipatzen dira, analisi eremuaren arabera sailkatuta:

- *Denboraren eremua*: Ezaugarri hauek seinalearen anplitudea, malda, lagin-banaketa estatistikoa, periodikotasuna edota bihotz-maiztasuna ezaugarritzeko erabili izan dira. Bihotz-maiztasun eta periodikotasunaren azterketa seinalearen autokorrelazio funtzioa erabiliz egin daiteke Chen et aliik [111] iradoki bezala, edota modu sinplean denbora markak eta zero-mailaren gurutzaketa tarteak (Threshold Crossing Intervals, TCI) identifikatuz Thakor et aliik [112] proposatu bezala. Arafat et aliik [113] TCIa kalkulatzeko metodo hobetua proposatu zuten, threshold crossing sample count (TCSC) izenekoa. 2005. urtean, Amman et aliik [152] exponentzial beherako-rretan oinarritutako bi ezaugarri proposatu zituzten bihotz-maiztasuna kalkulatzeko: algoritmo exponentzial estandarra (Exp), eta algoritmo exponentzial aldatua (Expmod). 2004. urtean, Jekova et aliik [109] hiru ezaugarri proposatu zituzten seinalea bandapasa iragazi ondoren laginen kontaketak seinalearen anplitude mailaren arabera egiteko. Beranduago, Anas et aliik [110] frogatu zuten seinalearen batezbesteko balio absolutua (mean of the absolute value, MAV) erritmo desfibrilagarri eta ez desfibrilagarrien ezaugarri bereizgarria zela. QRS konplexuak dituzten erritmoetan anplitudeak baxuak izan ohi dira, lerro isoelektrikoaren inguruan egoten baita



2.3. Irudia. Erritmo ez-desfibrilagarri (ezkerrean) eta desfibrilagarri (eskuinean) baten adibideak analisirako eremu desberdinetan. Goitik behera: denboraren eremua, wavelet transformatuaren eremua, maiztasunaren eremua eta PSR analisia.

sarri EKGa. FB/TB erritmoetan, aldiz, kontrakoa gertatzen da. Hortik abituta Irusta et aliik [85] bWT ezaugarria proposatu zuten seinalearen lerro isoelektrikoaren inguruko lagin kopuruaren proportzioa zenbatzeko. Irusta et aliik [85] eta Ayala et aliik [148] seinalearen maldan oinarrituako hiru ezaugarri proposatu zituzten, EKGaren aldaketa azkarrak QRS konplexuetan soilik ematen direla baliatuz. Lehen ezaugarria (bCP) [85] seinalearen malda atalase baten azpitik dagoen denbora proportzioa da. Bigarren ezaugarria, maldaren oinarrizko balioa (x1), maldaren 10. pertzentila da, eta hirugarrena maldaren atalase batetik gora dauden tontor kopurua (x2) [148].

- *Maiztasunaren eremua*: Arritmia bentrikularren maiztasun-nagusia 2.5 – 7.5 Hz tartean dago, eta EKGaren banda-zabalera 10 Hz-etatik behera egon ohi da. QRS konplexudun erritmoek berriz, maiztasun osagaiak bihotz-maiztasunaren (1 – 2 Hz) eta bere armonikoen inguruan dituzte, eta QRS konplexuen aldaketa azkarren ondorioz, 40 Hz-tik gorako banda-zabalera izan dezakete. Proposatutako lehen maiztasunezko metodoetako bat FB iragazki-jarioa (VF filter leakage, VFleak) izan zen [114]. FBaren hurbilketa sinusoidala proposatzen da maiztasun nagusiaren inguruko bandapaseko iragazki bat erabiliz. 1989an, Barro et aliik [151] lau ezaugarri proposatu zituzten, Fourierren analisitik abiatuta, maiztasun nagusiaren (M) eta beste hiru maiztasun-banden (A1, A2, A3) inguruko energiak neurtzeko. 1999an, Minami et aliik [115] arritmia bentrikularrak detektatzeko metodoa garatu zuten QRS konplexuen maiztasun osagaiak bost maiztasun-bandetan aztertuz. EKGaren fase akoplamenduaren informazioa erabiltzeko helburuarekin, Khadra et aliik [116] EKGaren analisi biespektrala proposatu zuten 2005ean. Azken urteotan Irusta et aliik [85] EKGaren banda zabaleraren estimazioa (bW) erabili zuten ezaugarri bezala, eta berriki Ayala et aliik [159] hiru ezaugarri proposatu zituzten, espektroaren anplituderik handienaren maiztasuna 1-10 Hz tartean (x3), potentzia proportzioak FBaren fibrilazio-bandan (2.5 – 7.5 Hz) (x4) eta goi bandetan (12 Hz-tik gora) (x5).

- *Denbora-maiztasun eremua*: 1995. urtean Afonso et aliik [160] EKGaren denbora eta maiztasun eremuen analisi bateratua erabiltzea proposatu zuten arritmiak sailkatzeko. Beraien lanean denbora-maiztasun banaketa ezberdinen sestra-kurbak konparatu zituzten. Wigner-Ville banaketa leundua eta kono-formadun nukleoak erabilita Fourierren denbora laburreko transformatuarekin baino emaitza hobeak lortu zituzten. Clayton et aliik [161] ere Wigner-Ville banaketa leundua erabili zuten esparru berdinean. 1997. urtean Khadra et aliik [116] kosinu-altzatuko Wavelet transformatua (Raised-Cosine Wavelet Transform, RCWT) erabili zuten EKGa denbora-maiztasun eremuan aztertzeko, eta zenbait denbora-maiztasun tartetako dentsitateak aztertu zituzten erritmo klase ezberdinetarako. Lan hori Fahoum et aliik [162] jarraitu zuten, 6 energia ezaugarri kalkulatuz Wavelet transformatu jarraitu eta diskretu desberdinak erabiliz. Wavelet transformatu diskretua (Discrete Wavelet Transform, DWT) ere erabili izan da FBaren konplexutasunaren analisirako, horretarako Tsallis edota Shannon erresoluzio anitzeko entropiak kalkulatuz [163]. Azken urteotan, Arafat et aliik [164] modo enpirikoko deskon-posaketa (empirical mode decomposition, EMD) proposatu dute denbora-maiztasun banaketen ordez.

- *Seinalearen konplexutasuna*: Egun onartzen da bihotz-arritmien detekziorako dinamika ez linealeko teknikak oso erabilgarriak direla [165]. OKBGtako arritmien sailkapenerako erabilitako seinale analisi ez-linealaren tekniken artean nabarmentzekoak dira fase-espazio berreraikitako analisia (reconstructed phase space analysis, PSR) [166, 167, 168], Lyapunov esponen-teak [169], korrelazio dimentsioa [161, 170], alborapenik gabeko fluktuazio analisia (detrended fluctuation analysis, DFA) [171], errekurrentzia grafikak [161], Poincaré grafikak [172], Hilbert-en transformatua (HILB) [173, 152], Hurst indizea [174] eta entropia ezberdinak [175, 176, 177, 178, 179], beste hainbaten artean. Hala ere, arritmia bentrikularren analisi ez-lineala konputazionalki garestia da, eta erabilera mugatua dute hardware sinplea duten KDAetan. Zhang et aliik [153] garatutako konplexutasun neurria (complexity measure, CM) konputazionalki sinpleagoa da, eta binarizatutako EKGaren Lempel-Ziv analisitik eratorritako neurria da. Jekova et aliik [158] binarizatutako EKGaren analisia sakonago aztertu zuten, seinale horren lau ezaugarri hauen kalkuluan oinarrituta: kobariantza (CVbin), azalera (abin), maiztasuna (Frqbin) eta kurtosia (Kurt).

2.1.2 Ezaugarrien aukeraketa

Desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki-algoritmoetarako dauden ezaugarri kopuru handia kontuan izanda, beharrezkoa da ezaugarri aukeraketa (EA) metodo eraginkorrak erabiltzea, sailkatzaile automatikoen zehaztasuna erabilitako ezaugarrien azpimultzoen menpekoa baita guztiz. EA-tekniken helburua ezaugarrien azpimultzo optimoa topatzea da, horretarako ereduetatik informaziorik gabeko, korrelatutako edota erredundanteak diren ezaugarriak kenduz. EA-teknikak hiru multzotan sailkatzen dira: iragazki-metodoak, bilgarri-metodoak edo sailkatzailean txertatutako metodoak.

Iragazki-metodoek ezaugarrien arteko korrelazio edota menpekotasunen neurri estatistikoak erabiltzen dituzte aldagaiak sailkatzeko, beraz, sailkatze-algoritmoarekiko independienteak dira. Aldagaiak aurre definitutako garrantzi neurri baten arabera sailkatzen dira, eta garrantzi gutxieneko ezaugarriak kentzen dira.

Bilgarri-metodoek sailkatze algoritmo baten errendimendua erabiltzen dute ezaugarri azpimultzoetatik lortu daitekeen informazioa ebaluatzeko. Beraz, metodo horietan sailkatze-algoritmo bat, errendimendu neurri bat, eta aukera guztien artean ezaugarri azpimultzo egokiak topatzeko algoritmo bat erabili behar dira. Oro har, ezaugarrien azpimultzo guztiak aztertzea ez da posible, eta askotan metodo heuristikoak erabiltzen dira. Metodo hauek algoritmo deterministikoetan eta ausazko bilaketa algoritmoetan banatzen dira. Metodo deterministikoen artean bilaketa metodo sekuentzialak dira erabilienak, aurrerakoak (Sequential Forward Selection, SFS), atzerakoak (Sequential Backward Selection, SBS), edota konbinatuak (Plus-ℓ Minus-r Selection, PTA eta Sequential Floating Selection, SFS). Ausazko metodoen artean daude algoritmo genetikoak edota simulatutako suntsidura.

Bukatzeko, txertatutako metodoetan ezaugarrien aukeraketa sailkatzaile algoritmoan bertan ematen da. Era honetako adibiderik ezagunena random forest (RF) sailkatzailearen ezaugarrien garrantzi-neurria da.

Hainbat EA-teknika erabili izan dira desfibrilatu/ez-desfibrilatu sailkatze probleman. 2002. urtean Rosado et aliik [180] bi iragazki metodoen eraginkortasuna konparatu zuten, osagai nagusien analisia (principal component analysis, PCA) eta berezko antolaketa mapen artekoa (Self-organizing Maps, SOM-Ward). 2007. urtean Jekova et aliik[158] Fisher-en F-balio neurrian oinarritutako iragazki metodoa erabili zuten mailaka 10 ezaugarri aukeratzeko [158]. 2016. urtean Tripathy et aliik [122] EArako elkarrekiko informazioan oinarritutako iragazki metodoa erabili zuten, sailkatzaileen zehaztasuna erabilitako ezaugarri kopuruaren arabera aztertuz.

Jekova et aliik [156] bilgarri metodoak erabili zituzten lehendabizikoz FB detekziorako ezaugarriak aukeratzeko. Bere lanean SFS bilaketa algoritmoa erabili zuten k hurbileneko auzokideen (k-Nearest Neighbour, kNN) sailkatzaile batekin batera. SFS algoritmoa ezaugarri multzo hutsetik hasi eta ezaugarriak sekuentzialki gehitzen ditu, gelditzen diren ezaugarrien artean sailkatzailearen zehaztasuna gehien igotzen duen ezaugarria aukeratuz. Prozedura eten egiten da ezaugarria gehitzeak zehaztasuna hobetzen ez duenean. Ausazko bilaketetan oinarritutako bilgarri metodoak ere erabili dira arritmia bentrikular hilgarriak identifikatzeko, batez ere algoritmo genetikoak [181, 182].

EA-algoritmoen eraginkortasuna hobetzeko askotan eredu hibridoak erabiltzen dira, hau da txertatutako edota iragazki-metodoak konbinatzen dira konputazionalki konplexuagoak diren bilgarri-metodoekin. Kasu horietan, SFS edo SBS metodoak (bilgarri metodoak) erabiltzen dira ezaugarri azpimultzo egokiak topatzeko, baina ezaugarriak gehitu edo kentzeko irizpide gisa iragazki metodoek edota sailkatzaileak berak neurtutako (txertatutakoa) ezaugarrien garrantzia erabiltzen da. Adibidez, 2012. urtean Alonso et aliik [157] euskarri bektoredun makinak (Support Vector Machine, SVM) eta ezaugarrien ezabatze errekurtsiboa (recursive feature elimination, RFE) konbinatu zituzten, SBS metodoan oinarritutako aukeraketa egiteko. 2014. urtean SVMan oinarritutako ezaugarrien egokitasuna iragazki-metodo batengatik ordezkatu zuten [118]. Azken urteotan, Figuera et aliik [117] erregularizatutako erregresio linealaren eta erabaki-zuhaitzen boosting-etik eratorritako ezaugarrien garrantzia erabili zuten SBS aukeraketa algoritmoarekin batera.

Bukatzeko, geruzatako eskemak (nested) erabili izan dira bilgarri-metodo hausazkoak eta deterministak konbinatuz. Adibidez, Nguyen et aliik [120] algoritmo genetikoan oinarritutako ezaugarrien rankinga erabili zuten SFS-metodoarekin batera.

2.1.3 Ikasketa automatikoko sailkatzaileak

Hainbat ikasketa automatikoko sailkatzaile erabili dira literaturan desfibrilatu/ez-desfibrilatu diagnostikorako, erregresio logistiko sailkatzaile oinarrizkoenetik abiatuta SVM edo neurona-sare konplexuak arte.

Sharma et aliik [183] eta Figuera et aliik [117] erregresio logistikoa erabili zuten FBaren detekziorako. Erregresio logistikoa sailkatzaile bezala erabili daitekeen erregresio linealaren aldaera bat da, eta erregresio linealeko ereduari logit funtzioa aplikatuz lortzen da, honela:

$$h_{\boldsymbol{\theta}}(\boldsymbol{x}_i) = \frac{1}{1 + e^{\boldsymbol{\theta}\boldsymbol{x}_i^T}} \quad \text{non} \quad \boldsymbol{\theta}\boldsymbol{x}_i^T = \sum_{k=1}^{K'} \theta_k x_i^k \tag{2.1}$$

Ereduak aurresandako balioa, $\hat{y}_i$, 1 da $h_{\boldsymbol{\theta}}(\boldsymbol{x}_i) \geq 0.5$ denean, eta 0 bestela. Helburua, beraz, aurresandako $\hat{y}_i$ balioen eta benetako y_i balioen arteko erroreak minimizatzen dituzten 2.1. ekuazioko $\boldsymbol{\theta}$ parametroak aukeratzea da. Hori lortzeko hurrengo kostu-funtzioa minimizatu behar da:

$$J(\boldsymbol{\theta}) = -\frac{1}{m}\left[\sum_{i=1}^{m} y_i \log h_{\boldsymbol{\theta}}(\boldsymbol{x}_i) + (1 - y^i)\log(1 - h_{\boldsymbol{\theta}}(\boldsymbol{x}_i))\right] \tag{2.2}$$

Prozesu hori antzerakoa da edozein ikasketa automatikoko sailkatze eredutan. Lehenengo eredua eraikitzen da, 2.1. ekuazioan adierazten den eran, eta gero koste-funtzioa, $J(\boldsymbol{\theta})$, definitzen da ereduaren parametroak ($\boldsymbol{\theta}$) lortzeko. Parametroak lortzeko koste-funtzioaren minimoa topatzen da, aurrensandako balioen, $\hat{y}_i$, eta benetako balioen, y_i, arteko erroreen minimoa lortuz entrenamendu multzoan. Eredua entrenatu ondoren, entrenamenduko multzoa alde batera uzten da.

Beste sailkatze metodo sinple bat Sharma et aliik [183] eta Nguyen et aliik [120] erabilitako kNN sailkatzailea da. kNN metodoan adibide berri baten klasea erabakitzeko adibide horrek entrenamenduko laginekiko duen distantzia kalkulatzen da ezaugarrien espazioan. Ondoren hurbilen dituen k laginak topatu eta lagin horietan sarrien agertzen den klasea esleitzen zaio adibide berriari. Hau da, erregresio logistikoan ez bezala ez dugu eredu matematiko itxirik eta, ondorioz, kNN sailkatzailean entrenamenduko datuak gorde behar dira: izan ere, ereduak aurresandako balio berriak entrenamenduko datuekin egindako distantzia konparaketetan oinarritzen baitira.

Desfibrilatu/ez-desfibrilatu sailkatze probleman gehien erabili izan diren ikasketa automatikoko ereduak neurona-sareak [184, 168, 115, 185] eta SVMa [186, 187, 118, 157, 119] dira. Neurona-sare artifizialak (Artificial Neural Network, ANN) elkarrekin konektatutako unitateez osatuta daude, aldagaien arteko korrelazio ez-linealak estimatzen dituzten neuronez, alegia. Sarrerako neuronak $\boldsymbol{x}_i$ aurresate aldagaiak (ezaugarriak) dira, eta ezkutuko neuronen geruzetara konektatzen dira, azken hauek irteera neuronekin konektatzen direlarik. Irteerako neuronek ereduak aurresandako klasea, $\hat{y}_i$, ematen dute. SVM sailkatzaileak klaseen arteko banaketa hiperplano optimoa kalkulatzen du ezaugarrien espazioan. Horretarako bi klaseen artean hurbilen dauden laginak identifikatzen dira ezaugarrien espazioan eta margina esleitzen da hiperplanoa eta puntu horien arteko distantzia oinarri hartuta. Klaseen arteko margina maximoa lortzeko euskarri bektoreak lortzen dira, muga funtzioa definitzen duten laginak, alegia. SVMan kernel funtzioak erabiltzen dira ezaugarrien dimentsio espaziotik dimentsio handiagoko espazio batetara pasatzeko, horretarako kernel linealak, gaussiarrak edota polinomikoak erabiliz. Horrela ezaugarrien espazioan linealki banatu ezin diren klaseak dimentsio handiagoko espazio batetan linealki banatzea lortzen da.

Oinarrizko sailkatzaileen konbinaketa metodoak ere erabili izan dira arritmia bentrikular hilgarriak detektatzeko [117]. Konbinaketa metodoak sailkatzaile ahul askoren iragarpenen konbinaketa eragingarrean oinarritzen dira aurresate sendoak lortzeko helburuarekin. Figuera et aliik [117] hiru konbinaketa metodo aztertu zituzten: bagging, random forest eta boosting. Bagging metodoetan B erabaki-zuhaitz eraikitzen dira entrenamendu datu-basetik lortutako B bootstrap lagin desberdin erabiliz. Azken erabakia eraikitako B zuhaitz horien gehiengo erabakia da. Random forest metodoa erabaki-zuhaitzez lortutako bagging metodoaren kasu partikular gisa har daiteke, baina bagginean ez bezala zuhaitzen erabakitze adar bakoitzean erabilitako aldagai azpimultzoa ausaz erabakitzen da. Random Forest-a zenbait arritmia bentrikularren detekzio algoritmoetan erabili izan da [187, 122]. Azkenik, boosting teknikan eredua sekuentzialki eraikitzen da, eraikitako $h_m(\boldsymbol{x}_i)$ sailkatzaile ahulak aurreko iterazioan lortutako sailkatzaile ahula, $h_{m-1}(\boldsymbol{x}_i)$, hobetuz. Horretarako iterazio berri bakoitzean aurreko iterazioan hutsegindako adibideak zuzentzen saiatzen da. Azken erabakia aurrez lortutako M sailkatzaileen konbinaketa haztatuaren bidez lortzen da:

$$y = \text{zeinu}\left(\sum_{m=1}^{M} \alpha_m h_m(\boldsymbol{x}_i)\right) \tag{2.3}$$

2.2 BBB-aren artefaktua

Sakada mekaniko zein eskuzkoek artefaktuak sortarazten dituzte EKGan, azken honen uhin-forma erabat aldatuz. 2.4. irudiak OKBGdun pazienteetan grabatutako hiru adibide erakusten ditu, sakadak eskuz (a irudia) edo gailu mekanikoz (b eta c irudiak) ematen direnean. Lehen 15 s-etan sakaden aktibitate mekanikoak pazientearen benetako erritmoa ezkutatzen du. Benetako erritmoa azken 5 s-etan agertzen da, sakadak eteten direnean alegia. Beraz, OKBGko erritmo sailkatzea ez da fidagarria sakadak ematen direnean. Adibidez, 2.5. irudiak KDA baten EDD-algoritmoak txarto sailkatutako hiru EKG segmentu erakusten ditu, eskuz (a irudia) zein gailu mekanikoz (b eta c irudiak) emandako sakada tarteetan. Irudiko a eta b adibideetan, sakadek sortutako artefaktua azkarra eta desantolatua da, ondorioz QRS konplexudun erritmoak FBaren antza du, EDD-algoritmoaren okerreko diagnosia sortaraziz. Irudiko c adibidean, berriz, sakaden artefaktua antolatua da eta konpresioen maiztasuna gailuarena da (80 min^{-1} Autopulse gailuan), ondorioz EKGak antolatutako erritmo ez-desfibrilagarriaren itxura hartu eta EDD-algoritmoak okerreko diagnostikoa ematen du. Hau da, erritmo analisirako algoritmoen zehaztasuna asko jeisten da sakaden artefaktuak daudenean. Adibidez, eskuzko sakadak ematen zirenean gailu komertzialetako EDD-algoritmoen Se/Sp



2.4. Irudia. OKBGdun pazienteetan grabatutako hiru 20 s-tako EKG adibideak. Hasierako 15 s-etan sakaden artefaktua ikusten da hurrenez hurren: (a) eskuzko sakadak (b) LUCAS-2 sakadak eta (c) Autopulse sakadak. Azken 5 s-tan benetako bihotz-erritmoa ikusten da artefakturik gabe, hurrenez hurren: (a) FBa, (b) PGAE eta (c) AS.

balioak honakoak ziren: %58.4/%90.8 eta %81.5/%67.2 [146, 147]. LUCAS-2 gailu mekanikoaren sakada tarteetan, berriz, Aramendi et aliik [150] %52.8/%81.5 Se/Sp balioak erreportatu zituzten. Bestalde, Rad et aliik EKG garbirako garatutako klase anitzeko OKBGen sailkatzailearen SBHak 20 puntu egin zituen behera eskuzko sakada tarteetan frogatu zenean [137].

Eskuz eta gailu mekanikoz emandako sakadek EKGaren uhin-forma zeharo aldatzen duten arren, bai batak bai besteak sortutako artefaktuak oso desberdinak dira denboraren eta maiztasunaren



2.5. Irudia. Sakadak ematen direnean (lehen 15 s-ak) egindako erritmo analisi okerrak, BBBa emateko modu ezberdinetan: (a) eskuzko sakadak (b) LUCAS-2 sakadak eta (c) Autopulse sakadak. Lehenengo bi irudietan ez-desfibrilagarriak diren QRS konplexudun erritmoak ageri dira (ikusi azken 5 s-ak), sakaden tartean artefaktua azkarra eta desantolatua da, okerreko desfibrilatzeko erabakia sorraraziz. Azpiko irudian, artefaktu motel eta antolatu batek FBa guztiz estaltzen du, EDD-algoritmoaren ez-desfibrilatzeko diagnosia sorraraziz.

eremuan[2]. 2.6. irudiak erakusten du normalizatutako potentzia-dentsitatearen espektroa (PDE), eskuzko sakaden (a irudia) eta sakada mekanikoen (b eta c irudiak) kasuetarako. PDEan ikus daitekeenez, bular-sakaden maiztasuna (f_{bs}) oso egonkorra da LUCAS-2 ($f_{\text{bs}} = 1.694$ Hz=101.7 min^{-1}) eta AutoPulse ($f_{\text{bs}} = 1.335$ Hz = 80.1 min^{-1}) gailuetarako, eta potentzia maiztasun horren eta bere harmonikoen inguruan biltzen da. Eskuzko sakaden kasuan, aldiz, sakaden maiztasuna aldakorra da eta PDEa sakabanatuago agertzen da. Gainera, sakada mekanikoen artefaktuen banda-zabalera eskuzkoena baino handiagoa da. Denboraren eremuan, Aramendi et aliik [150] ez zuten ezberdintasun esanguratsurik topatu eskuzko eta LUCAS-2 artefaktuen anplitudeen medianen artean (%90 konfiantza-tartea, KT), hurrenez hurren 1.29 (0.86 – 2.13) mV eta 1.22 (0.70-1.86) mV balioak lortuz. AutoPulse gailuak sortutako artefaktuen anplitudeen mediana (%90 KT) berriz esanguratsu handiagoa da 4.4 (1.0-16.7) mV, kasuen arteko ezberdintasunak ere handiagoak direlarik [188]. Azkenik, gailu mekanikoek sortutako artefaktuen uhin-formak eskuzkoenak baino egonkorragoak dira (periodikoagoak) [150, 188]. Uhin-formaren Pearson korrelazio-koefizientea (ρ) antzerakoa da AutoPulse eta LUCAS-2 artefaktuetan, ρ-ren medianak 0.983 (0.736 – 0.999) eta 0.981 (0.585 – 0.999) direlarik, hurrenez hurren. Eskuzko sakaden artefaktuen ρ-ren mediana berriz 0.896 (0.305 – 0.989) da, mekanikoen kasuan baino esanguratsuki txikiagoa ($p < 3 \times 10^{-7}$ Wilcoxon Rank-Sum frogan).

Eskuz eta mekanikoki emandako sakaden artefaktuen uhin-forma asko aldatzen da berpizte kasu batetik bestera [150]. Aldakortasun hori azaltzen duten faktoreen artean daude pazienteen bularren ezaugarri ezberdinak, azala-elektrodoaren arteko kontaktua, edota konpresio puntu eta desfibrilazio-partxeen arteko posizio erlatibo desberdinak [189, 190]. Eskuzko sakaden kasuan, sorosleekin erlazionatutako faktore gehiagok hartzen dute parte, adibidez sorosleek BBBa emateko dituzten modu desberdinak, soroslearen nekea, edota zenbait sorosleen txandatzea [191]. Aldakortasunaz aparte, sakaden artefaktuaren espektroak OKBGko bihotz erritmoen espektroekin duen gainjartzea ere aipatzekoa da, 2.7. irudian ikusten

2 Atal honetan aurkeztuko diren emaitzak tesian erabilitako zeinbait datu-baseetatik atera dira [150, 188]



2.6. Irudia. Eskuz (a) eta mekanikoki (b, c) emandako sakaden artefaktuen normalizatutako PDEa, pazientaren erritmoa asistolia denean. Tarteek harmoniko bakoitzean bildutako potentzia proportzioaren mediana (%80 KT) adirazten dute.

den bezala. Irudiak OKBGko erritmo desberdinen PDEa erakusten du, 2.6. irudian lortutako artefaktuekin batera. Ikusten denez, espektroen gainjartzea handiagoa da erritmo ez desfibrilagarrietan, PE eta PGAE erritmoetan alegia. Eta gainjartzea ere handiagoa da eskuz emandako konpresioen artefaktuarekin.

Laburbilduz, bi puntu nagusi landu behar dira bihotz-erritmoaren azterketa fidagarria lortzeko BBBko tarteetan: artefaktuaren aldakortasuna, denboran zein maiztasunean, eta artefaktuek OKBGko erritmoekin duten espektro-gainjartzea. Sakada tarteetan artefakturik gabeko EKGa lortzeko biderik jorratuena EKG seinalearen iragazketa izan da. Horretarako teknikak hurrengo atalean deskribatzen dira.



2.7. Irudia. Asistolian grabatutako BBB-artefaktuen (eskuz eta mekanikoak) eta OKBGko erritmoen normalizatutako PDEak. Goiko irudietan erritmo desfibrilagarriak (FB eta TB), azpiko irudietan erritmo ez-desfibrilagarriak.

2.3 Erritmoaren analisia sakada tarteetan

1.7. Atalean deskribatu den legez, erritmoaren analisirako algoritmo idealak BBBa eten gabe OKBGan ematen diren 5 erritmo klaseen sailkatzea ahalbidetu beharko luke. Hala ere, desfibrilazioak OKBGen biziraupenean duen garrantzia eta BBBa gehien bat eskuz ematen dela kontuan izanda, azken 15 urteotako ahalegin nagusiak eskuz emandako BBBan erabilgarriak diren desfibrilatu/ez-desfibrilatu metodoen garapenean egin dira.

Bide desberdinak landu dira BBBan desfibrilatu/ez-desfibrilatu diagnostiko fidagarria lortzeko [192, 193], baina ikerketa lerrorik landuena BBB-artefaktuaren iragazketa izan da [191]. Hasierako ikerlanetan, koefiziente konstanteduneko iragazkiak erabiliz BBB-artefaktuak txerrien EKGetatik garbitzea lortu zen [194, 195]. Gizakien EKGetan ezin dira goi-paseko iragazki horiek erabili, BBB-artefaktuaren espektro-osagaiak EKGaren maiztasun bandan agertzen baitira (ikusi 2.7. irudia). Ordutik, beraz, ahaleginak BBB-artefaktuaren ereduak estimatzeko iragazki moldakorren diseinuan zentratu dira.

2.3.1 Ebaluatzeko metodologia

Iragazki moldakorrak frogatzeko metodologia ikerlariek eskura izan dituzten datuen araberakoa izan da nagusiki. Hasierako lanetan iragazkien eraginkortasuna neurtzeko EKG garbiak (txerri zein gizakienak) eta asistolian lortutako BBB-artefaktuak nahasten ziren. Langhelle et aliik [189] eta Aase et aliik [196] proposatu zuten ebaluaketarako nahasketa eredua. Nahasketa ereduak onartzen du BBB-artefaktua, $s_{\mathrm{bbb}}(n)$, zuzenean batzen den zarata dela, bihotz-erritmoaren EKGarekiko, $s_{\mathrm{ekg}}(n)$, independientea dena. Hipotesi horretatik abiatuta iragazketa metodoak frogatu daitezke, aparte lortutako EKG garbi eta BBB-artefaktua nahastuta, nahasketan seinale/zarata ratio (signal-to-noise ratio, SNR) desberdinak erabiliz:

$$s_{\mathrm{kut}}(n) = s_{\mathrm{ekg}}(n) + \alpha \cdot s_{\mathrm{bbb}}(n), \quad \text{non} \quad \alpha = \sqrt{\frac{P_{\mathrm{ekg}}}{P_{\mathrm{bbb}} \cdot 10^{\mathrm{SNR}/10}}} \tag{2.4}$$

Nahasketa edo kutsatutako seinalea, $s_{\mathrm{kut}}(n)$, sortzerakoan SNR maila dezibeletan (dB) doitzen da, horretarako α koefizientea erabiliz. P_{ekg} eta P_{bbb} EKGaren eta BBB-artefaktuaren potentziak dira, hurrenez hurren. Oro har, nahasketak egiteko -10 dB (zarata maila handia) eta 10 dB (zarata maila txikia) bitarteko balioak erabiltzen dira. 2.8. irudiak nahasketa eredua erabiliz sortutako artefaktudun EKGa, $s_{\mathrm{kut}}(n)$, erakusten du. Irudian FBa eta erritmo ez-defibrilagarri baten kasuak erakusten dira eskuzko BBB-artefaktu batekin nahastuta SNR = 0 dB eta SNR = -10dB mailetan.



2.8. Irudia. Nahasketa eredua erabiliz sortutako artefaktudun EKGak. Goitik behera: asistolian lortutako BBB-artefaktuak, $s_{\mathrm{bbb}}(n)$, EKG garbia, $s_{\mathrm{ekg}}(n)$, FBan eta erritmo ez defibrilagarrian lortuak, eta nahastutako seinaleak, $s_{\mathrm{kut}}(n)$, 0 dB eta -10 dB SNR mailetan.

Nahasketa eredua erabiliz zuzenean alderatu daitezke iragazi ondoren lortutako EKGa, $\hat{s}_{\mathrm{ekg}}(n)$, eta jatorriko EKG garbia, $s_{\mathrm{ekg}}(n)$. Erabili izan zen lehen ebaluazio-metrika iragazketak eragindako SNR handitzea (ΔSNR) izan zen. ΔSNR metrika erraz interpretatzen den balioa da eta iragazkiak doitzeko balio du, baina ez du iragazketak erabaki klinikoan duen eraginaren berri ematen, hau da, pazientea desfibrilatzea komeni den edo ez. Limitazio hori gainditzeko, Aase et aliik [196] iragazkien eraginkortasuna neurtzeko EDD-algoritmoaren zehaztasuna erabiltzea proposatu zuten, 2.9. irudian adierazten den bezala. Modu horretan, iragazketa erabiliz lortu daitekeen zehaztasuna lortzeko, iragazi ondoren lortutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu EDD-algoritmoaren erabakiak benetako erritmoen anotazioekin konparatzen dira.

Ikertzaileek berpiztean lortutako OKBGko seinaleak eskuragarri izan zituztenean nahasketa eredua alde batera utzi zen, bi limitazio nagusi baititu. Batetik, geldiketetan agertzen diren SNR mailak ez dira ezagutzen, eta ez dago argi SNRa hobetze mailak zelan isladatzen diren klinikoki esanguratsuak diren Se/Sp balioetan [197]. Bestetik, baliteke nahasketa ereduak BBBak bihotzaren dinamikan duen eragina ondo ez isladatzea. Horregatik, EDD-algoritmoen zehaztasuna erabili zen iragazki moldakorrak ebaluatzeko, 2.9. irudian adierazten den eskema jarraituz.



2.9. Irudia. BBB-artefaktua EKGtik garbitzeko iragazki moldakorrak ebaluatzeko metodologia nagusia. Iragazitako EKGa, $\hat{s}_{\mathrm{ekg}}(n)$, desfibrilagailu batetako EDD-algoritmo bat erabiliz diagnostikatzen da.

2.3.2 BBB-artefakua ezabatzeko eskema moldakorrak

Kanale anitzeko hurbilketak

BBB-artefaktuak garbitzeko lehen iragazkiek sakaden artefaktuaren eredua lortzeko kanale anitz erabiltzen zituzten. 2.10. irudiak kanale anitzeko ereduen bloke-diagrama orokorra erakusten du, zeinetan estimatutako BBB-artefaktua honela lortzen den:

$$\hat{s}_{\mathrm{bbb}}(n) = \sum_{p=1}^{P} \sum_{k=0}^{K_p-1} h_p(n-k) s_{\mathrm{ref},p}(k) \tag{2.5}$$

non P kanale-kopurua den, eta $s_{\mathrm{ref},p}(n)$ p-kanaleko erreferentzia-seinalea, BBB-artefaktuarekin korrelatuta dagoena. Erreferentzia-



2.10. Irudia. Kanale anitzeko BBB-artefaktu ezabatzailearen bloke-diagrama. Iragazkien koefizienteak algoritmo moldakor desberdinak erabiliz lortu daitezke.

kanale bakoitzeko, $h_p(n)$ eta K_p iragazkiaren koefizienteak eta maila dira, hurrenez hurren.

Iragazketaren helburua $\hat{s}_{\mathrm{bbb}}(n)$ lortzea da, hau da, artefaktuaren estimaziorik onena, kutsatutako seinaletik abiatuta, $s_{\mathrm{kut}}(n)$. EKG garbia lortzeko nahasketa eredua baliozko dela onartzen da, eta estimatutako artefaktua eta kutsatutako seinaleen kenketa egiten da:

$$\hat{s}_{\mathrm{ekg}}(n) = s_{\mathrm{kut}}(n) - \hat{s}_{\mathrm{bbb}}(n) \tag{2.6}$$

Azken hau iragazki moldakorren formulazio klasikoa da, eta iragazkiak lotzeko n denbora une bakoitzean $h_p(n)$ iragazkiaren K_p koefizienteak kalkulatzen dira, $s_{\mathrm{kut}}(n)$ eta $\hat{s}_{\mathrm{bbb}}(n)$ arteko errorea minimizatuz. EKG garbiaren, $s_{\mathrm{ekg}}(n)$, eta BBB-artefaktuaren, $s_{\mathrm{bbb}}(n)$, arteko korrelazio eza onartuta, lortutako errore seinaleak, $\hat{s}_{\mathrm{ekg}}(n)$, pazientearen erritmoa islatzen duen EKGa emago luke.

Literaturan proposatu diren kanale anitzeko soluzioen arteko desberdintasunak erabilitako erreferentzia-seinalean datza, baita erabilitako algoritmo moldakorrean ere, hau da iragazkien koefizienteak lortzeko algoritmoan. Aase et aliik [196] lehen kanale anitzeko iragazkia proposatu zuten, Wiener iragazkia erabiliz eta BI eta SS seinaleak erabiliz. Ebaluaketarako gizakien EKGak eta animalietan lortutako BBB-artefaktu mekanikoak nahastu zituzten.

Husøy et aliik [198] Multi-Channel Recursive Adaptive Matching Pursuit (MC-RAMP) algoritmoa proposatu zuten. MC-RAMP algoritmoak iragazkiaren koefizienteak Matching Pursuit deritzon algoritmoa erabiliz lortzen ditu, eta iterazio bakoitzean BBB-artefaktuarekin korrelaziorik handiena duen seinalea erabiltzen da. Horrela, MC-RAMP algoritmoa erabiliz Wiener iragazkiaren kostu-konputazionala zeharo txikitzea lortu zuten, datu berdinekin SNR emaitza konparagarriak lortuz. 2004. urtean Eilevstjøn et al. [146] aitzindariak izan ziren OKBGko datuak erabiltzen zituen lehen ikerlana argitaratzen. Lanean MC-RAMP iragazkia lau erreferentzia-seinaleekin lan egiteko moldatu zuten: BI, EKGren modu-komuna, azelarazio seinalea eta SS seinalea.

Kanale anitzeko metodoen limitaziorik handiena erreferentzia-seinale anitzen beharra da, horrek askotan desfibriladoreetan hardware aldaketak egitea suposatuko bailuke. Desfibriladore gehienek soilik EKGa eta partxeen kokapen zuzena bermatzeko BIa grabatzen dituzte, nahiz eta BBBrako berrelikadura gailuetatik ere sakaden sakontasuna edota azelerazio seinaleak geroz eta sarriago eskuragarri dauden. Gainera, kanale anitzeko iragazkien kostu-konputazionala handia da, eta horrek mugatu egiten du berauen erabilera hardware sinplea erabiltzen duten hainbat desfibriladoreetan.

Iragazketarako egitura sinplifikatuak

Eilevstjøn et aliin [146] lana argitaratu zenetik ikerlan askoren helburua izan da erreferentzia-seinaleen kopurua txikitzea edota erreferentzia-seinalerik ez erabiltzea. Ikerlan hauek bi multzotan sailkatu daitezke: EKGa soilik erabiltzen duten iragazkiak, eta EKGa erabiltzeaz gain BBBaren inguruko informazio minimoa ere erabiltzen dituztenak. Gainera, iragazki moldakorrez aparte, kutsatutako EKGa zuzenean aztertuz diagnosia egiten duten metodoak ere proposatu dira.

Kanale anitzeko metodoen konplexutasuna txikitzeko lehen ahaleginetan BBB-artefaktua garbitzeko EKG kanalea soilik erabili zen, 2.11. irudian adierazitako bi pausotako eskema jarraituz. Lehenego pausoan, bular-sakaden oinarritzko maiztasuna, f_0, zuzenean kutsatutako EKGtik lortzen da horretarako espektro analisia erabiliz. Bigarren pausoan, iragazki moldakorra erabiltzen da artefaktua garbitzeko, horretarako f_0 eta bere harmonikoetako maiztasun osagaiak garbituz. Bigarren pausorako hiru iragazki moldakor proposatu dira literaturan: banda-ezabatzeko iragazki moldakorra [199], Kalman iragazkia [88] eta f_0-ra doitutako sareko osagai ezabatzaile koherentea [200].

Banda-ezabatzeko algoritmoa 2007. urtean proposatu zuten Aramendi et aliik [199], f_0 inguruko zirrikitu-iragazkia erabiliaz, eta 1 – 3 Hz tarteko espektro-anplitude handienaren maiztasuna hartuz sakaden maiztasun gisa. Iragazkia BBB-artefaktuaren ezaugarri ez geldikorretara doitu zedin, f_0 balioa 4.8 s-ro eguneratzen zen, tarte hori baitzen ebaluaketarako erabilitako EDD-algoritmoaren lehioa.

2008. urtean Ruiz de Gauna et aliik [88] BBB-artefaktuaren eredu konplexuagoa doitzeko gaitasuna zuen iragazkia aurkeztu zuten. Eredu horretan artefaktua adierazi zuten harmonikoki erlazionatutako bi osagaiez:

$$\hat{s}_{\mathrm{bbb}} = c_0(n)\cos(\omega_0 n + \theta_0(n)) + Kc_1(n)\cos(2\omega_0 n + \theta_1(n)) \quad (2.7)$$

non $\omega_0 = 2\pi f_0 T_s$ maiztasun diskretua den, eta K koefiziente bitarra, bigarren harmonikoa ereduan sartzen den kontrolatzen duena. Osagai sinusoidalen denboraren menpeko anplitude eta



2.11. Irudia. Kanale bakarreko iragazki moldakorren bloke-diagrama. Bular-sakaden oinarrizko maiztasuna, f_0, kutsatutako EKGtik, $s_{\mathrm{kut}}(n)$, lortzen da eta BBB-artefaktuaren eredua doitzeko erabiltzen den informazio bakarra da.

faseak ($c_0(n), c_1(n), \theta_0(n)$ eta $\theta_1(n)$) egoera aldagai gisa definitu eta 4 egoeratako Kalman iragazkia erabiliz estimatu zituzten.

2010. urtean Amann et aliik [200] sareko osagai ezabatzaile koherentea erabiltzea proposatu zuten, sareko maiztasuna erabili ordez sakaden maiztasuna erabiliz. Sakaden maiztasuna lortzeko maiztasun bakoitzaren eta bere harmonikoen potentzien batura maximo egiten zuen f_0 maiztasuna hartu zuten, alegia:

$$f_0 = \arg\max_f \left\{ \sum_{k=1}^{M} |X_{\text{kut}}(kf)^2| \right\} \tag{2.8}$$

non X_{kut} espektroa $s_{\text{kut}}(n)$ seinalearen Fourierren transformatua den. Sakaden f_0 maiztasuna lortu ondoren, sareko osagai ezabatzaile koherentea erabili zuten BBB-artefaktu periodikoa osagai harmonikoen bidez adierazteko.

EKGan oinarrituako soluzioen artean Ruiz de Gauna et aliik [191] proposatutako Kalman iragazkiak erdietsi zituen EDD-algoritmoaren Se/Sp emaitzarik onenak. Hala ere, zehaztasuna kanale anitzeko MC-RAMP iragazkia erabiliz lortutakoa baino txikiagoa izan zen, agerian utziz BBB-artefaktuaren ezaugarriak lortzeko erreferentzia-seinaleen garrantzia.

EKGan soilik oinarritutako soluzioen limitazioak gainditzeko, Irusta et aliik [147] EKGan oinarritutako iragazkia proposatu zuten, baina erreferentzia kanale bakarra erabiliz BBB-artefaktuaren oinarrizko informazioa lortzeko. Haien hipotesi nagusia zen sakaden maiztasuna nahikoa zela BBB-artefaku eredua zehatz doitzeko. Horrela, desfibriladoreetan egin beharreko hardware aldaketak txikiak lirateke informazio hori sakadak emateko kuxinetatik lor baitaiteke, eta kanale anitzeko soluzioen limitaziorik handiena gaindituko litzateke.

BBB-artefaktua ia-periodikoa den eredu bat erabiliz doitu zuten, N harmonikotara mugatutako Fourierren seriea erabiliz. BBB-artefaktuaren oinarrizko maiztasuna, f_0, sakaden maiztasuna zen, alegia. Maiztasun hori konstante hartu zuten konpresio-ziklo batean, baina aldakor sakada-ziklo batetik hurrengora. Hau da, t_{k-1} eta t_k

hurrenez hurren eman diren bi sakaden sakontasun maximoko uneak izanik, maiztasuna honela adierazi zuten:

$$f_0(n) = \frac{1}{t_k - t_{k-1}} \quad t_{k-1} \leq nT_s < t_k \tag{2.9}$$

eta N harmonikoz osatutako Fourierren seriea berriz:

$$\hat{s}_{\mathrm{bbb}}(n) = A(n) \sum_{k=1}^{N} \left[a_k(n) \cos(k\phi(n)) + b_k(n) \sin(k\phi(n)) \right] \tag{2.10}$$

non $a_k(n)$ eta $b_k(n)$ denboraren menpeko k. harmonikoaren fase- eta koadratura-anplitudeak diren, eta $\phi(n) = 2\pi f_0(n) n T_s$ denboraren menpeko fasea den (maiztasuna ere aldakorra da). Bestetik, sakada eta sakadarik gabeko tarteak barne hartzeko $A(n)$ artefaktuaren anplitude inguratzailea definitzen da, eta $A(n) = 1$ da sakada tarteetan eta $A(n) = 0$ da sakadarik gabekoetan. Sakaden t_k uneak automatikoki lortu zitutzen SS seinalean tontor negatiboen detektore bat erabiliz (ikusi beheko 2.12. irudia). Ereduan erabiltzen diren artefaktuaren fase eta anplitude inguratzailea 2.12. irudian erakusten dira, baita sakaden uneak SS seinalean markatuta.

2.13. irudian erakusten da Irusta et aliik [147] proposatutako iragazki moldakorraren egitura. EKG seinaleaz aparte behar den informazio bakarra t_k uneak dira, $A(n)$ eta $f_0(n)$ lortzeko erabiltzen baitira. Denboraren menpeko $a_k(n)$ eta $b_k(n)$ koefizienteen kalkulu iteratiboa LMS (Least Mean Squares) algoritmoa erabiliz egin zuten horrela $s_{\mathrm{kut}}(n)$ eta $\hat{s}_{\mathrm{bbb}}(n)$ arteko errore minimoa lortuz f_0 maiztasunaren harmonikoetan.

Irusta et aliik [147] frogatu zuten BBB-artefaktuaren harmoniko anitzeko eredua sakaden maiztasunarekin elikatuz, MC-RAMP iragazkiak lau seinalerekin lortzen zituen emaitza antzerakoak lor zitezkeela. Ordutik, hainbat ikerketa lanek erabili dute Fourierren serieetan oinarritutako eredua. Adibidez Ruiz et aliik [201] Kalman iragazkia erabili zuten Fourierren koefizienteak kalkulatzeko, eta Aramendi et aliik [202] frogatu zuen t_k uneak BI seinaletik atera daitezkeela LMS iragazkian erabiltzeko. Azken emaitza honek



2.12. Irudia. Goitik behera: kutsatutako EKGa, $s_{\mathrm{kut}}(n)$, anplitude inguratzailea, $A(n)$, Fourier-seriaren denboraren menpeko fase ez lineala, $\cos\phi(n)$, eta SS seinalea sakaden t_k uneekin batera.

berebiziko garrantzia du, BI seinalea desfibriladore gehienetan jasotzen baita partxeen kontaktua egiaztatzeko, eta ondorioz harmoniko anitzeko eredua BBB kuxinik ez duten gailuetan ere erabili daitekeelako.

2008. urtean Li et aliik [192] gaia lantzeko planteamendu berri bat proposatu zuten, zuzenean EKG kutsatuaren analisia egitea, alegia. Li et aliik [192] proposatutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu algoritmoan BBB-artefaktuaren eragina arbuiagarria izatea zen helburua, horretarako iragazketa nolabait EKGaren ezaugarri erausketaren fasean txertatuz. Proposatu zituzten ezaugarriak EKG seinalearen Waveletaren azpi-banda analisian, eta azpi-banden arteko korrelazioan oinarrituta zeuden. Gero, Krasteva et aliik [193] bigarren metodo bat aurkeztu zuten. Kasu honetan, desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakirako ezaugarriak kutsatutako EKGtik eta berreraikitako EKGtik lortu zituzten, azken EKG hau iragazitako EKGaren pareko izanik.



2.13. Irudia. Irusta et aliik [147] proposatutako iragazketa-eskemaren bloke-diagrama. Iragazkia eraikitzeko artefaktua Fourierren serie baten bidez eraikitzen da eta seriea sortzeko behar den informazio bakarra sakaden t_k uneak dira. Ereduaren $a_k(n)$ eta $b_k(n)$ koefizienteak LMS iragazketa moldakorra erabiliz lortzen dira f_0 maiztasunean eta bere harmonikoetan kutsatutako eta iragazitako EKGen arteko errorea minimo eginez.

2.3.3 Emaitzen laburpena

2.1. taulak erakusten ditu aurreko ataletan deskribatutako familietako metodorik onenen emaitzak. Ikerketa guzti hauetan OKBGdun pazienteetan grabatutako seinaleak erabili ziren, ondorioz EDD-algoritmo baten Se eta Sp balioen arabera ebaluatu ziren. Emaitzak ezin dira zuzenean konparatu, ikerketa lan bakoitzean datubase eta EDD-algoritmo desberdin bat erabili baitzen, hala ere emaitza hauek erakusten dute zeintzuk diren metodo horiek erabilita lortu daitezkeen zehaztasun mailak.

Ruiz de Gauna et aliik [88] lortutako emaitzak EKGa soilik erabiltzen duen metodorako, beste metodoekin lortutakoak baino txarragoak dira, batez ere sentsibilitatea, azken hau 5–6 puntu txarragoa baita. Li et aliik [192] proposatutako EKG kutsatuaren analisiak emaitzak hobetzen ditu, baina egileek oso asistolia proportzio txikia zuten datubasean. Asistolia erritmoen Se eta Sp balio baxuen arrazoietako bat da, iragazi ondoren AS eta FBaren arteko bereizketa oso zaila baita [85, 88]. Emaitza horiek erakusten dute BBBa eten gabe erritmo analisi fidagarria lortzeko erreferentzia kanaleek duten garrantzia. MC-RAMP kanale anitzeko soluzioak, EKGan soilik oinarritutakoak baino emaitza hobeak ematen ditu datu-base oso eta zabal batean. Irusta et aliren[147] konpresioetan oinarritutako iragazkiaren emaitzak MC-RAMParen antzerakoak dira, konputazio-zama eta hardwarean egin beharreko aldaketen beharrak nabarmen txikituz.

2.1. Taula. BBB tarteetan erritmoa aztertzeko lau metodo adierazgarriren emaitzen konparaketa. Metodo guztiak OKBGko datuekin frogatu ziren, datubaseetan erritmo desfibrilagarriak (dfb) eta ez-desfibrilagarriak (Ez-dfb) adierazten dira, parentesi artean asistolia proportzioa jarriz.

		Zehaztasuna		**Datubasea**	
Egileak	**Metodoa**	Se (%)	Sp (%)	Dfb	Ez-dfb
Eilevstjøn et al. [146]	MC-RAMP	96.7	79.9	92	174 (%30)
Ruiz de Gauna et al [88]	Kalman iragazkia	90.1	80.4	131	347 (%43)
Irusta et al. [147]	LMS iragazkia	95.6	86.4	89	292 (%30)
Li et al. [192]	Analisi zuzena	93.3	88.6	1256	964 (%4)

Metodo guztien sentsibilitatea AHAk gomendatutako %90-tik gorakoa izan zen. Tamalez, espezifikotasuna kasurik onenean ere [147] AHAk gomendatutako %95-tik ia 9-puntutara gelditu zen. Espezifikotasun baxu batek, desfibrilazio faltsu positibo asko eragingo lituzke, eta deskarga emango ez balitz ere horrek BBBan etenaldi larregi eragingo lituzke. Espezifikotasunaren balio baxuen arrazoi nagusia da erritmo ez-desfibrilagarrietan gelditzen diren iragazketa hondarrak. 2.14. irudiak erakusten duen moduan hondar horiek askotan erritmo desantolatuen antza dute eta askotan EDD-algoritmoak desfibrilagarri gisa sailkatzen ditu. Faltsu negatibo gehienak ere iragazketa hondarren ondorio dira, kasu hauetan (ikus 2.14b irudia) iragazkiak ezin ditu sakadek eragindako puntadun artefaktuak jarraitu, eta puntadun uhin-forma hauek QRS konplexu gisa hartzen ditu EDD-algoritmoak.

Bukatzeko, desfibrilatu/ez-desfibrilatu algoritmoen zehaztasuna BBB tarteetan mugatua da, egun desfibriladoreetan dauden algoritmoak erabiltzen badira. EDD-algoritmo horiek EKG garbiak erabiliz erabakia hartzeko disenaitzen dira, eta iragazketa hondarrek nahastu egiten dute algoritmoa. Azken urteotan landu da ikerkuntza lerro bat gabezia hori zuzentzeko, iragazitako seinaleak erabiliz



2.14. Irudia. EDD-algoritmoak iragazitako EKGa txarto sailkatzen ditueneko bi adibide. Goiko irudietan desfibriladoreak grabatutako EKGa, $s_{\text{kut}}(n)$, eta beheko paneletan BBB-artefaktua iragazi ondoren lortutako EKGa, $\hat{s}_{\text{ekg}}(n)$. Goiko paneletako lehen 15 s-tan BBB-artefaktua ikusten da EKGan, eta jarraian datorren 15 s-tako tartean berriz bihotz-erritmoa artefakturik gabe. Azaldutako bi kasuetan EDD-algoritmoak diagnostiko okerra egiten du EKGa iragazi ondoren agertzen diren iragazketa hondarren ondorioz.

entrenatutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu algoritmoen garapena, alegia.

2.3.4 Iragazitako EKGaren analisia

2014. urtean Ayala et aliik [105] BBB tartetako analisia egiteko modu berria proposatu zuten. Ikasketa automatikoan oinarritutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu algoritmoen garapena alegia, baina ezaugarriak iragazitako EKG seinaletik erauziz. 2.15. irudiak hurbilketa honen diagrama orokorra erakusten du, iragazketa



2.15. Irudia. BBB tarteetarako erritmo analisirako metodo berriak. Metodoak bi etapa nagusi ditu: iragazki moldakorra sakaden artefaktua ezabatzeko, eta jarraian ikasketa automatikoko sailkatzailea iragazitako EKGtik erauzitako ezaugarriekin entrenatzen dena.

moldakorra eta ikasketa automatikoko teknikak erabiltzen dituena, hau da 2.3.2. eta 2.1. ataletan aurkeztutako tekniken sintesia. 2.15. irudiak erakusten du ikasketa automatikoko algoritmoa elikatzeko ezaugarriak iragazitako EKGtik erauzten direla. Horrela, EDD-algoritmoak iragazitako EKGaren ezaugarriak ikasten ditu, iragazketa hondarrenak barne. Are gehiago, EDD-algoritmoaren ezaugarrien aukeraketa egiteko etapan sailkatzeko ezaugarrien azpimultzo onenak aukeratzen dira, iragazketa hondarren eragin kaltegarria gehien txikituko duen ezaugarrien multzoa, alegia.

Ayala et aliik [105] erabili zuten iragazkia Irusta et aliik [147] proposatutakoa izan zen. Ondoren, iragazitako EKGan diagnostikoa egiteko bi ezaugarri kalkulatzen ziren asistoliaren tankerako aktibitate elektriko baxuko erritmoak identifikatzeko. Aktibitate elektriko baxukoak ez ziren erritmoetan FB edo QRS konplexudun erritmoen arteko bereizketa egiteko, denbora eta maiztasun eremuko parametroak erautzi ziren. Bukatzeko, parametro horiek SVM sailkatzaile batean erabili ziren desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakia hartzeko.

Ayala et alen [105] metodoa izan zen BBB tarteetarako AHAk ezarritako gutxieneko balioetatik gorako zehaztasun mailak lortu zituen lehena, lortutako Se eta Sp balioak %91.0 eta %96.6koak izan zirelarik, hurrenez hurren. Sentsibiliatea zertxobait jeitsi zen arren, metodoak aurreko proposamenek sortzen zituzten faltsu positibo gehienak zuzentzen zituen. Hurbilketa berri horrek etorkizuneko BBB tarteetako analisirako hobekuntzetarako oinarri sendoak finkatu zituen, hobekuntzak ezaugarrien erausketan, ezaugarrien aukeraketan edota ikasketa automatikoan eman zitezkeelarik.

3 HIPOTESIAK ETA HELBURUAK

Doktore tesi hau hasi zenean, bular-sakaden tarteetan erritmo-analisiak agertzen zituen hainbat ezagutza-hutsune identifikatu ziren. Tesi honen hipotesi nagusia izan zen seinaleen prozesatze eta ikasketa automatikoko teknikek hutsune horiek estaltzen lagun zezaketela. Hutsune horiei heltzeko asmoz, helburu hauek zehaztu ziren:

- *1. helburua*: Bular-sakada mekanikoak ematen diren bitartean desfibrilatu/ez-desfibrilatu diagnosi fidagarria burutzen duen algoritmoaren garapena, eremu honetan ez zegoen AHArekin bateragarria zen soluziorik. Helburu hori bigarren mailako bi azpi-helburutan banatu zen:
  - Iragazketa eskemak artefaktu mekanikora egokitzea. Helburu horri lotutako emaitzak konferentzia artikulu batean ($K1_1$) eta indexatutako aldizkari batean argitaratu ziren ($A1_1$).
  - Desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki-algoritmoen emaitzak hobetzea ikasketa automatikoko sailkatzaileak erabiliz. Bigarren mailako helburu horren emaitzak konferentzia artikulu batean eta indexatutako aldizkari batean aurkeztu ziren, $K2_1$ and $A2_1$.
- *2. helburua*: Sakada mekanikoak ematen diren bitartean bihotz-erritmoa 5 klaseetan sailkatzeko lehenengo algoritmoaren garapena. Lan hau, Rad et aliik [136] proposatutako erritmo anitzen sailkatzailearen hedapena izan zen, artefakturik gabeko EKGentzat diseinatuta zegoena. Helburu hori lortzeko

egindako lan guztia nazioarteko aldizkari batean argitaratu zen, $A1_2$.

- *3. helburua*: Ikasketa automatikoan oinarritutako EDD-algoritmoen zehaztasuna hobetzea ikasketa sakoneko teknikak erabiliz eskuzko BBBan zehar. Bi konferentzia artikulu, $K1_3$ eta $K2_3$, eta aldizkari artikulu bat $A1_3$ argitaratu ziren lan honen ondorio.
- *4. helburua*: Sakada mekanikoek eragindako artefaktua ezabatzen duten hainbat iragazkiren errendimendua ebaluatzea klinikoki garrantzitsuak diren EKGren ezaugarrien arabera. Lan horretan lortutako emaitzak indexatutako aldizkari batean argitaratu ziren, $A1_4$.

4 EMAITZAK ETA ONDORIOAK

4.1 Emaitzak eta eztabaida

Atal honetan, 4. atalean zehaztutako helburuak lortzeko egindako azterlanen emaitzak eztabaidatzen dira. Aldizkari indexatuetan lortutako emaitzei erreparatuko diegu, aldez aurretik konferentzietan argitaratutako ekarpenak zabaldu eta hobetzen baitituzte.

4.1.1 1. helburuan lortutako emaitzak

Lehenengo helburua bi azpi-helburutan banatu zen eta horietako bakoitzean lortutako emaitzak aldizkari batean publikatu ziren:

- $A1_1$: Soluzio honek LUCAS-2 gailuak eragindako artefaktuak ezabatzeko iragazki tradizionalekiko hobekuntza bat proposatu zuen, Irusta et aliin [147] lanean deskribatzen den metodoan oinarritutakoa, alegia. Hau posiblea izan zen bi faktore nagusiri esker. Lehenik eta behin, Goertzelen algoritmo hedatua erabili zen Fourierren seriearen ereduan finkatu beharreko N harmonikoen kopurua kalkulatzeko. Bigarrenik, artefaktu fase eta koadratura koefizienteak estimatzeko *Recursive-Least-Squares* (RLS) iragazkia erabili zen LMSaren ordez. Iragazki horren zehaztasuna EDD-algoritmo komertzial baten bidez ebaluatu zen, %98.1eko eta %87.0ko Se eta Sp balioak lortuz, hurrenez hurren. Soluzio horrek BBB mekanikoaren aurretiazko azterlanetan lortutako emaitzak hobetu zituen arren [150], AHAk zehaztutako errendimendu-helburuen azpitik zegoen. Hori dela eta, iragazitako EKGa aztertzeko, etapa anitzeko sailkatzaile (Multi Stage Algorithm, MSA) konplexuago bat proposatu zen. MSA algoritmoa honako hauek osatzen zuten: EDD-algoritmo komertzial batean oinarritutako hiru desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakitze-etapa eta EKGaren maldan oinarritutako erabakitze etapa bat. Soluzio honek %91.8ko eta %98.1eko Se eta Sp balioak lortu zituen, hurrenez hurren. MSA konputatzionalki oso garestia zen arren, BBB mekanikoan zehar desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki fidagarria eman zuen lehen metodoa izan zen AHAren zehaztasunak erdietsiz.

- $A2_1$: Lan honetan, ikasketa automatikoan oinarritutako algoritmo bat erabili zen, EDD-algoritmo komertzialaren ordez, desfibrilatu edo ez desfibrilatu erabakia hartzeko. Hasteko, metodoa erresoluzio altuko (Stationary Wavelet Transform, SWT) teknikan oinarritu zen ezaugarrien erauzketarako. Ezaugarrien aukeraketa, metodo bilgarriak erabiliz gauzatu zen. Azkenik, SVM sailkatzaile bat erabili zen desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakietarako. Algoritmoak %97.5eko eta %98.2 Se eta Sp balioak lortu zituen hurrenez hurren, MSA soluzioaren ZOa hiru puntutan handituz. Hobekuntza hau posiblea izan zen bi faktore nagusiri esker. Alde batetik, SWTan oinarritutako ezaugarrien erauzketari esker diskriminatzeko gaitasun handiago duten EKG ezaugarriak lortu ziren. Beste alde batetik, iragazitako EKGtik erauzitako ezaugarriak erabiltzeak SVMaren zehaztasuna nabarmen hobetu zuen, iragazitako EKGaren ezaugarriak ikasi baitzituen (iragazketaren hondakinak barne). Algoritmo horrek, MSAren zehaztasuna hobetzeaz gain, eskaera konputazionalak txikitu zituen.

4.1.2 2. helburuan lortutako emaitzak

Lan honetan ($A1_2$), bihotz erritmoa 5 klaseetan sailkatzeko lehenengo algoritmoa proposatu zen eskuzko sakadak ematen diren bitartean. Iragazitako EKGtik 93 FB detekzio ezaugarri erauzi ziren SWTan oinarrituta, eta RF sailkatzaile bat erabili zen desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakia lortzeko. Diskriminatzeko gaitasunik handiena zuten ezaugarriak aukeratzeko eredu hibrido bat erabili zen, SBS metodo sekuentziala eta RF sailkatzailetik eratorritako garrantzia konbinatzen zituena. Lau sailkatzaile ezberdin garatu ziren, kontextu kliniko ezberdinetan erabiliak izateko. Horietako bakoitzak hurrengo erritmoen arteko bereizketa gauzatu zuen: desfibrilagarria/ez-desfibrilagarria, desfibrilagarria/AS/ORG, FB/TB/AS/ORG eta FB/TB/AS/PGAE/PE. Sentsibilitateen batezbesteko haztatuaren balioak %95.4, %87.6, %80.6 eta %71.9koak izan ziren 2, 3, 4 eta 5 klaseetako sailkatzaileentzat, hurrenez hurren. Desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki-algoritmoak %93.5 eta %97.2eko Se eta Sp balioak lortu zituen, AHAk zehaztatutako errendimendu-helburuak betez eta Ayala et aliik [105] lortutako emaitzak hobetuz (begiratu 2.3.4. atala). Hemengo 5 klaseko sailkatzaileak %71.9ko SBHa lortu zuen eskuzko BBBan, Rad et aliik [105] EKG garbian garatutako 5 klaseko sailkatzailearen zehaztasunetik oso hurbil zegoena (soilik 5.8 puntuko aldea SBHan). Rad et aliik [137] proposatutako algoritmoa artefakturik gabeko EKG garbian frogatu zenean %75eko SBHa lortu zuen baina balio hori %52.5era jaitsi zen algoritmoa sakada bitarteko tarteetan frogatu zenean, sailkaketa iragazitako EKGan egin zen arren.

4.1.3 3. HELBURUAN LORTUTAKO EMAITZAK

Helburu honetatik eratorritako argitalpenak, $A1_3$, ikasketa automatikoan oinarritutako desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabakitze-algoritmoen zehaztasuna hobetzea zuen helburu, horretarako ikasketa sakoneko teknikak erabiliz. Metodoak bi zati zituen: RLS iragazki moldakor bat BBB artefaktuak iragazteko eta Neurona Sare Konboluzional (Convolutional Neural Network, CNN) bat iragazitako EKGan erritmo desfibrilagarriak detektatzeko. CNNak 3 bloke konboluzional zituen kalitate altuko EKGaren ezaugarriak erauzteko, eta erabat konektatutako bi geruza erritmo desfibrilagarrien eta ez-desfibrilagarrien bereizketa egiteko. Metodo honen bidez %95.8 eta %96.1eko Se eta Sp balioak lortu ziren, hurrenez hurren. Algoritmo horrek, $A1_2$-an argitaratutako ikasketa automatikoko algoritmo tradizionalen errendimendua hobetu zuen, ikasketa sakoneko metodoak desfibrilatu/ez-desfibrilatu erabaki fidagarria emateko duten ahalmena erakutsiz eskuzko BBB tarteetan.

4.1.4 4. helburuan lortutako emaitzak

